

500 pezeta.
20 libera

hik hasi

euskal
heziketarako
aldizkaria

39

Kalitatea
lortzeko bidean
gaia

Marinus Vader
elkarrizketa

Buru
funtzionamenduaren
pedagogia
gehiagarria

Osasun heziketa
esperientziak

1999ko EKAINAA

Argitaratzailea:

XANGORIN

Zirkuitu Ibilbidea,
2. Pabilioia. 20.160
LASARTE-ORIA
GIPUZKOA.

Tel: 943/ 37.15.45
Fax: 943/ 36.10.48
Posta elektronikoa:
hik hasi@antza.com

Lege Gordailua: SS-1001/95
ISSN: 1135-4690

Koordinatzailea:
Jose Mari Auzmendi

Erredakzio burua:
Ainhoa Azpiroz

Erredakzio batzordea:
Itziar Barriola, Mikel Estonba,
Arantxa Goiburu,
Mari Karmen Irastorza,
Kristina Mardaraz,
Josi Oiarbide, Juanjo Otaño,
Fito Rodriguez, Maite Saenz,
Xabier Sarasua eta
Arantxa Urbe.

Aholkulariak:
Imanol Agirre, Abel
Ariznabarreta, Begoña Bilbao,
Mariam Bilbatua, Xabier Isasi,
Irene Lopez-Goñi,
Izaskun Madariaga,
Kepa Perez Urraza,
Lore Erriondo,
Lontxo Oihartzabal eta
Pruden Sudupe.

Diseinua:
Zart

Maketazioa, fotomekanika:
Xangorin.

Inprimategia:
ANTZA S.A.L.

Azaleko argazkia:
Ikor Kotx
(Pello Ellakuria)

Hezkuntza, Unibertsitate eta
Ikerketa Sailak Onetsia
1.999/VI/2

Kopurua: 3.500 ale

5 **editoriala**

6 **kronika**

8 **gaia**

Kalitatea lortzeko bidean

15 **elkarrizketa**

Marinus Vader

21 **gehigarria**

Buru funtzionamenduaren pedagogia

Armelle Geninet irakaslearen ikerlanak

27 **Euskal ikasleen III. Biltzar
Nazionala**

28 **Sarean Elkartearen ondorioak**

29 **Esperientziak**

Osasun heziketa

Bilboko Begoñazpi ikastola

32 **Nafarroa**

Bianako Erentzun ikastola

Proiektuz eta ilusioz betetako eraikina

35 **Berriak**

39 **Praktikatzen**

Eraldaketa motak

Oscar Viguera

COUNCIL OF EUROPE-
CONSEIL DE L'EUROPE



Strasbourg
1996ko maiatzaren 22

Aldizkari honek "aipamen berezia" jaso du Europako Kontseiluaren "lurrealdeko arteko lankidetzarako sustapena" programaren barruan.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke.

hik hasik ez ditu bere gain hartzen laguntzaileek plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.



fundazioa
fundación

Eskura itzazu hik hasiren materialak



CD eta
Kasetak



Musika
liburuak



Harpidedunek ale
monografikoak eta
Gida dohan jasoko
dituzte.

Gainontzeko
materialetan prezio
bereziak izango
dituzte.



Euskal Herriko
Baliabide
Pedagogikoen GIDA
Irailean berritua

euskal
heziketarako
aldizkaria

Zirkuitu ibilbidea, 2. pabilioa
20160 LASARTE-ORIA. GIPUZKOA
Tel: 943 37 15 45
Faxa: 943 36 10 48
Posta elektronikoa: hikhasi@antza.com

Oraindik ere euskaraz ikasi eta hezi nahiak hamaika buruhauste ekartzen ditu Euskal Herrian

EKAINA

e d i t o

r i a l a

O

teizar ikasle bategen bizia galdu du eskolako bidean zihoala. Egunero Oteizatik Lizarrara joan behar izaten zuen euskaraz ikasi

ahal izateko.

Haur eta gazte nafar asko dira egunero kilometro anitz egin behar dituztenak derrigorrezkoa duten heziketa euskaraz jaso ahal izateko. Nafarren gisan, ikasle asko dira Iparraldean alde batetik bestera zeharkatzen dutenak eta euren etxetatik urrun astea pasa behar dutenak euskaraz hezi ahal izateko.

Urtez urte biztanle gehiago dira euren heziketa euskaraz jasotzearen aldeko hautua egiten dutenak. Datuek hala baieztatzen dute. Eta honen aurrean, errealitatera egokitu ezin diren lege eta plangintzak ditugu, zaharkituta gero eta herren lotsagarriagoa egiten duen eredu politika.

Vascuencearen Legeak Nafarroa hiru zonaldean antolatu duen arren, ezarritako irudikapenezko muga horien alde ezberdinetan legearen zentzugabekeria ulertzen ez duten herritarrak adierazten ari dira euren

nahia: heziketa euren hizkuntzan jaso nahi dutela. Eta horretarako, legeak ipini dituen antolaketa artifizial guztiak gaindituz bere eskubidea gauzatzeko bideak bilatu behar izan dituzte.

Ezin da denbora luzeagoz ezjakinarena egin eta beste aldera begiratzen jarraitu. Oteizako gertakari tamalgarririk ezin da berriro errepikatu. Ikasurterero milaka gazteri euskaraz garatu eta bizitzea galarazten dien hizkuntza politika antzua eraberritu behar da. Herritarrek geroz eta ozenago egiten duten aldarrikapena bermatu behar dute Administrazioek, eta horretarako neurriak hartu eta bitartekoak jarri behar dira azkar baino lehen.

Gizarteko esparru desberdinetatik eta Bilbon GUNEAk bilduriko hezikuntzako taldeek ere ideia hau berretsi zuten. Hasteko Nafarroa eta Iparraldean euskararen ofizializazioa gauzatu behar da lehenbailehen eta ondoren tokian tokiko egoeratik abiatuz Euskal Herri guztirako diseinatu-tako euskararen normalizazioarako plangintzarekin bat egin.

Euskaldunak euskaraz bizi eta hezi nahi dugu gure herrian: eskubidez, justiziaz.

Herria da gorputza, hizkuntza bihotza!



Guztiok gara kontziente euskararen ofizialtasunaren beharraz eta irakaskuntza euskaldunaren garrantziaz

k r o n



Euskal irakaskuntzari mugarik ez!

Lelo hori aukeratu dute euskarazko irakaskuntzaren alde lan egiteko bateratu diren taldeek. EHE, LAB irakaskuntza, Ikasbatuaz, Sortzen eta Ikasle Abertzaleak taldeek manifestu bateratua sinatu dute zenbait aldarrikapen gizarte osora zabaldu asmoz. Manifestu horretan azaltzen dutenez, "hizkuntzaren berreskurapenean eskolaren funtzioa garrantzitsua da. Biztanle guztiei euskara ezagutzeko eskubidea bermatu behar zaie, eta horretarako biderik ziurrena eskola eta irakaskuntza dira".

Baina errealitateak euskarazko irakaskuntza hori oraindik guztiz bermatu gabea dagoela erakusten du. Nafarroan %70ak baino gehiagok ikasten dute erdal erduetan, Iparraldean %80tik gorak eta EAEn Lehen Hezikuntzako ikasleen laurdenak A erduan ikasten du. Gauzak horrela, taldeok hizkuntz erduen birmoldaketa eskatu dute.

Bestetik, Lanbide Heziketan euskarak duen presentzia sinbolikoak ere guztiz kezkatzen ditu. Arlo honetan 10.000 sinadura bildu dituzte jendearen aurrean eta Hego Euskal Herriko Hezikuntza Sail eta Ordezkaritzetan utzi dituzte. Lanbide Heziketa lehenbailehen euskalduntzeko neurriak har ditzaten eskatu dute bi arrazoitan oinarrituz: batetik, euskaldunek erdal-dunek adinako eskubidea dutelako Lanbide Heziketa beren hizkuntzan egin ahal izateko, eta bestetik, lan merkatua euskaldundu ahal izateko garrantzitsua delako.

Arazo hau eta gehiago konpontzeko administrazioen inplikazioa beharrezkoa dela uste dute eta horixe bera eskatuz gutun bana igorri diete Nafarroako eta Eusko Jaurlaritzako agintariari. Datorren ikasturterako planifikazio duin bat egiteko eskaera luzatu diete.

Seaskako ikastolen estatutua aldatzeko deia

Duela 30 urte sortu zen Seaska, Ipar Euskal Herriko Ikastolen Federazioa, eta zerbitzu publikoa eskaintzen jardun arren, oraindik ez dute halako estatuturik lortu. 1994. urtean Hezikuntza Nazionalarekin izenpetu zuten akordioaren arabera, ikastolek elkarte kontratua dute eta eskola pribatu bezala kontsideratzen dira. Ondorioz, Falloux legea dela eta, botere publikoek ezin dute ikastolen eraikuntzarik ordaindu. Beraz, Seaskaren gain geratzen da.

Premiak bultzata, Seaskak kampaña berri bat abiatu du eskolen estatutua aldatzeko. Arduradun politikoengana zuzendu dira sostengu eske eta bilerak ere lortu dute Paueko Akademiakoekin. Hala ere, ikusi egin beharko da zein ondorio ekartzen dituen bilerak.

Egia esan, Eurokartaren sinaketa ere tartean dago. Frantziako eskualdeko hizkuntza eta kulturek ondare kulturalaren aberastasuna osatzen dutela onartzen duen agiri politikoa da berau. Baina hori zein hizkuntzari aplikatuko zaion eta bakoitzarentzat nola erabiliko den oraindik ikusteke dago.

“Gure idealak ez du izan behar unibertsala lortzea geure berezitasunez gabetuz, aldi berean ahalik eta unibertsalena eta partikularrena bihurtzea baizik”. (ALAIN TOURAINE)

i k a



Euskarazko unibertsitate ikastetxea sortzeko urratsak

Ikastolen Elkarte, Udako Euskal Unibertsitatea, AEK eta Zenbat Gara elkarte euskarazko unibertsitate-ikastetxe bat egiteko proiektua lantzen ari dira. 2000-2001. ikasturterako abian jarriko litzateke Ikasgu Nagusia izena hartuz eta oraindik zehazteke badago ere, Durangaldean koka liteke.

Oraindik ez da zehaztu zein titulazio eta noiz eskainiko dituen, baina gaur egun dauden hutsuneak betetzeko asmoa dute. Lehenengo nahiz bigarren

zikloko ikasketak eta graduondokoak eskainiko dira epe luzera eta baita ere, prestakuntza iraunkorra, hezkuntza zerbitzuak eta proiektuak sustatu, ikerketak landu eta graduondokoei arreta berezia jarri.

Hauetan guztietan euskara eta euskal kultura izango dira oinarri. Euskararen normalkuntzak ere goren mailako titulatu beharra ekarriko du eta horiei erantzutea izango da Ikasgu Nagusiaren xedeetarik bat. Bestalde, irakasleen prestakuntzari eta ikasmaterialen gabeziari ere aurre egin beharko die.

Ez da unibertsitate bereiztua izango, unibertsitate-ikastetxea baizik, eta beraz, beste unibertsitate baten babesa beharko du titulazioak emateko. Ziur-zenik Mondragon Unibertsitatea izango da babesle hori. Beste unibertsitateekin ere elkarlanean aritzeko aukera ikusten dute; Kataluniako Unibertsitate Irekiarekin, EHUko hainbat arduradunekin eta Euskal Herriko beste erakunde batzuekin. Kooperatiba autonomo bezala antolatuko da finantzabideak bertako ikasleen matrikulak eta erakunde publiko zein enpresa pribatuen laguntzak izango dira.

Euskararen normalizatorako lege berriaren proposamena Nafarroan

Oinarriak taldeak euskararen normalizatorako Nafarroak izan beharko lukeen legearen idatzia ezagutzera eman du. Oinarri batzuk finkatzen diren txostena burutu du eta eztabaidara zabaldu ere bai. Jendearen kontsentsua lortu du eta datorren urtean Parlamentura eramateko asmoa azaldu du, herri ekimen legegilearen gisa.

Gaur egun Euskararen Legeak euskarari jartzen dizkion oztupoak eta arazoak ikusita sortu zen legea aldatzeko premia eta horren ondotik eratu da txosten berria. Hainbat arlo aztertu dira eta bakoitzeko proposamenak jaso ere bai. Printzipio orokor bezala hizkuntza guztiak eskubide berdinak dituztela azpimarratzen da, eta haien artean ez dela bereizketarik egin behar.

Irakaskuntzari dagokionez, ikas ziklo guztietan euskara irakatsiko dela azpimarratzen da eta hala aukeratu duenak eskubidea izango duela. Komunikabideen alorrean, Nafarroako euskaldunek informazioa euskaraz jasotzeko duten eskubidea azpimarratzen da eta beraz, Nafar Gobernuak komunikabide ezberdinek euskara erabiltzen dutela ziurtatu beharko duela.

Administrazio publikoari helduz, herritarrek jardura publiko zein pribatu orotan euskara erabiltzeko eskubidea izango dutela aipatzen da. Eta kultura eta kirol munduan euskararen erabilera normalizatua bultzatu behar dela.

GAIA

Kalitatea lortu



Azken urteotan Kalitatearen Gestioa industria eta zerbitzuetatik hezkuntzara zabaldu da. Gero eta ikastetxe gehiago dira Kalitatezko Hezkuntza eskaini nahi dutenak eta hori lortzeko lana egiten hasi direnak. Zentro asko dira etengabeko hobekuntza sistemak garatzen ari direnak.

Baina honek guztiak lana eta denbora eskatzen du, ez da esfortzurik gabe lortzen den errekonozimendua. Zentroa goitik behera kontrolatzea eskatzen du, autoebaluaketak egitea, akatsak aurkitzea eta beti hobetzeko nahia izatea. Hori guztia egiten laguntzeko Euskalit eta Foro XXI erakundeak daude EAEn.

Euskalit

Euskalit, Kalitaterako Euskal Iras-kundea, 1992. urtean sortu zuten EAEko 18 enpresa eta erakundek kalitatearen kultura zabaltzeko asmoz. Helburua gizarteko hainbat arlotan garapena, konpetitibitatea eta ongizatea bultzatzea da, eta arlo horien artean kokatzen da hezkuntza. Horrela, Euskalitek Kalitate Osoa lortu nahi duten ikastetxeentzako laguntza programak egiten ditu.

Gaur egun EAEko 135 ikastetxe dau-
de programa honetan.

Euskaliten programa

Euskaliteko hezkuntza arloko ardura-
duna Monica Ituarte da eta beraiek egi-
ten duten lanaren berri eman digu.

tzeko bidean

“Kalitatearen gestioa aurrera eramateko hainbat eredu daude eta guk EFQM (European Foundation for Quality Management) europarrarekin egiten dugu lan. Eredu honekin eta gure programarekin Kalitate Osoaren Gestioaren estrategia ezartzen laguntzen diegu ikastetxeei”.

Eredu honen gestioaren oinarriak “unibertsalak” dira, hots, edozein motatako erakundetan aplikatu daitezke. Hainbat europar adituk eraturakoa da eta behin eta berriro berrikusten dute, hobekuntzak gehitzen dizkieten bertsio berria argitaratuz. Eredu honen zabalkundea eta erabilera gero eta handiagoa da Europako Komunitatean. Ekonomikoki eta intelektualki eskuragarria da, 40 orduko prestakuntzarekin ereduaren oinarritzko ezagupenak eskuratzen dira eta.

Orrialde honetan duzue EFQM ereduaren eskema.

Pausoz pauso egin beharrekoa

EFQM ereduaren autoebaluaketan oinarritzen da. “Hasteko, zentro bakoitzak bere autoebaluaketa egiten du eta hainbat arlotan nola dagoen neurtzen du. Beste ikastetxeekin izandako esperientziaren arabera, gutxi gorabehera guk badakigu zein izaten diren akats gehien izaten dituzten arloak eta aurretik horien berri ematen diegu. Arlo horietako autoebaluaketaren ondoren puntuaketa bat egiten da eta hori hobetzea da egin beharreko lana”.

Beraz, hobekuntza arloak zehaztu eta ikasturte bakoitzean egin daitezkeen aukeratzen dira horiek hobetzeko helburuarekin. “Hurrengo autoebaluaketan beste arlo batzuk agertuko dira eta horiek hobetuko dira orduan. Horrela, pixkanaka-pixkanaka zentroa hobetuz doa. Lorik hartu gabe, beti hobekuntzak

egitea da muina” dio Ituarte.

Baina nola lortzen da hobekuntza hori? Horretarako hurrengo pausoak ematen dituzte:

1.- Euskalitek prestakuntza saioak eskaintzen dizkiete zentroetako zuzendari eta zuzendaritzako ordezkari bati.

2.- Ondoren, hauek jaso dutena zuzendaritzako beste partaideei helarazten diete.

3.- Zuzendaritza taldeak hainbat ekintza burutzen ditu ikastetxean saio hauetan ikasitakoa praktikan jarri.

4.- Zuzendari eta kolaboratzaile guztien bilera egiten da egindako esperientziak komunean jarri.

Euskaliten programak hiru edo lau urtekoak dira. Denbora horretan garrantzitsua ESFORTZUA da. “Ez dago esfortzurik gabeko ikasketarik. Gure programan parte hartu nahi izan duten guztiei beti argi utzi diegu esfortzu garrantzitsua eskatzen duela” azpimarratu digu Ituarte.

Esfortzu hauen ondorioz zentroen gestioa aurreratu egiten da eta ereduak ezarrita dituen puntuak gehitzen joaten dira. Izan ere, eredu honek 1.000 puntu

ditu guztira, baina errealitatean ez omen da inor horra iristen. “Ondoen ibiltzen direnak 650 ingurura iristen dira eta 400 puntu lortzea ere oso ongi dago”.


Baina puntu horiek lortzeak ez du esan nahi ziurtagiririk ematen zaienik. Ituarte argitu digunaren arabera, Euskalitek ez ditu ziurtagiriak ematen. “Hala ere, zentroek kanpoko ebaluatzaileak eska ditzakete beraien maila zein den balora dezaten. Kasu horretan beste bi ikastetxetako zuzendariak joaten dira eta hauekin batera pyme bateko gerentea, ospitale bateko zuzendaria edo beste zenbait. Hauek zentroa ebaluatzen dute eta txosten bat egiten dute zentro horrek gestio aurreratua duen ala ez ikusten duena eta kanpoko ebaluaketa pasa duten ala ez esaten duena”.

Zer eskaintzen die ikastetxeei horrelako ereduak?

1.- Zentroen norabidea definitzen laguntzen du, eta ondorioz norabide hori bideratzeko erabili behar diren estrategiak ere bai.

2.- Definitutako bidean zein egoera-

EFQM eredu europarra



tan dauden jakitea posible egiten dute aldikako analisi eta autoebaluaketek.

3.- Datu objektiboekin gestionatzen da. Eta ondorioz, datuak sistematikoki biltzen dira, antolaketa aldatzen da eta antolaketarako adierazle garrantzitsuak finkatzen dira.

4.- Gestio eredu honek eskatzen duen "lidergoaren" paper berria onartzen da. Hau da, gestioaren sistemarekiko inplikazio osoa sortzen da: prestakuntza pertsonala eta kultura honen zabalpena zentro osora, erraztasunak ematen ditu eta helburuak zehazten dira.

5.- Zentroaren barruan etengabeko hobekuntzaren kultura barneratzen da.

6.- Zentroaren funtzionamendurako taldean lan egiteak duen garrantzia ikusten da.

7.- Bezeroa nor den hausnartzen da eta honek izan behar duela gure ekintzaren oinarri.

8.- Zentroak eskaintzen dituen zerbitzuak ongi definitutako prozesuen emaitza dira eta ez kasualitatearen ondorio. Prozesuekin lan egiteak zerbait bertute ditu:

- Maila guztietako mugikortasuna errazten du (ordezkapenak, langile berrien etorrera, aldaketak...).

- Gauzak modu zehatz batean egingo direla ziurtatzen da.

- Denek modu berean lan egingo dutela bermatzen da.

- Gauzak kontrolpean daudela ziurtatzen da.

Zein dira ondorioak?

Kalitatearen Gestio Programaren helburu orokorra kalitatezko hezkuntza eskaintzea da eta hori lortzeko aukera ematen du eredu honek. Aipatu pausok eginez eta autoebaluaketak burutuz ikusten dira ondorioak. "Zentro guztietako emaitzak ez dira berdinak, hasierako helburua ez baita guztietan berdina. Baina oro har, gehien ikusten diren emaitzak aipa daitezke:

- Euren puntu indartsuak ezagutzen dituzte.

- Hobetu beharreko arloak ikusten dituzte, horrela ekintzak planifikatzeko.

- Bezeroen asetze maila jakiten dute guraso eta ikasleen artean sistematikoki

egiten diren inkestak bidez.

- Gurasoen espektatibak nabaritzen dituzte seme-alabak zentrorera eramatean.

- Zentroko pertsonalgoaren asetze maila nabaria da.

- Emaitzak aurrez ezarritako norabidean dauden ala ez ikusten da".

Foro XXI: Kalitatea Lanbide Heziketa Publikoan

Euskalitz bezalaxe, Foro Gipuzkoa XXI erakundea ere kalitatea eta hobekuntza proiektuak egin eta bultzatzen jarduten da. Adeg, Elkargi, Kutxa eta EHUk osatzen dute. Hainbat esparrutara zabaltzen da bere jarduerak eta hezkuntzara ere bai. Horrela, 1994. urtean hezkuntzan ere kalitatearen gestio sistema jorratzea erabaki zuten eta Lanbide Heziketako eskoletara jo zuten. 94-95 ikasturtean prestakuntza saio batzuk eskaini zizkien 15 zentro publiko eta pribaturi. Horietatik lau zentrok aurrera jarraitzeko gogoia erakutsi zuten eta G1 izena jarri zioten sarea osatu zuten dinamika horretan sakontzeko asmoz. Tolosa, Martutene, Bergara eta Usurbilgo Lanbide Heziketako ikastetxeek osatu zuten sarea eta Foro Gipuzkoa XXIek koordinatzaile bat ezarri zuten kalitatearen gestio sistema garatzen laguntzeko.


Jorge Arevalo Hezkuntza Saileko Lanbide Heziketako Zuzendariak ongi ikusi zuten iniziatiba, eta 96-97 ikasturtean konbenio bat sinatu zuten Foro Gipuzkoa XXIekin. "Foro XXI: Kalitatea Lanbide Heziketa Publikoan" izena du konbenioak.

Hasieran lau ikastetxe hasi baziren ere, gaur egun konbenio honen barruan daudenak 32 dira. Guztiak koordinatze-lanak egiten ditu Kike Intxausti proiektuaren koordinatzaileak. Proiektua bi arlotan banatzen dela nagusiki azaldu digu Intxaustik:

1- Sarea: hau da abiapuntua. Ikastetxe zuzendariak eta kalitate ardura-dunak biltzen dira eta ikas- eta irakas-prozesua lantzen dute: ikas-irakas-prozesua definitu...

2- Zentroa: bitartean ikastetxean hobekuntza taldeak egiten dituzte kalitate mundu honetan sartzeko prest daudenekin. Eskolan zer hobetu daitekeen ikusten dute eta gai bakoitzaren inguruan

1. grafikoa



ekipo bat muntatzen dute. Ekipoan lan egitea oso garrantzitsutzat jotzen dute.

Hau guztia proiektuarekin hasten diren urtean egiten da eta bigarren urtean bi arloak batzen dira, sarea eta zentroa. "Sareko informazioa zentrorra jais-tendaetasarean definitutakoak garrantzia duela ikusten bada zentroan, aseguramendu sistema ezartzen da, ISO 9002 ziurtagiria lortzera bideratua dagoena. Horrekin batera, autoebaluaketak egiten dira EFQM ereduaren arabera. Eta ondoren, zentroaren planifikazio estrategikoa. Hau da, zentroak zer nahi duen definitzen da eta hori garatzeari ekiten diote".

Hau guztia martxan jarri ondoren ISO ziurtagiria ateratzea erabaki lezake ikastetxe batek, baina ez da derrigorrezkoa. Intxaustik azpimarratzen duenez "garrantzitsuena kalitate sistema ezartzea da eta ondoren zentro bakoitzaren eskuetan geldituko da ziurtagiria eskatzearen edo ez eskatzearen erabakia".

Prozesu honek guztiak suposatzen duen lan guztia 1. grafikoan ongi ikusten da.

Proiektuaren muina: pertsonalgora

Kalitatearen gestio sistema ezartzera-koan eskolako gestio sistema osoa aldatu behar da eta gauza ugari hobetu behar dira, besteak beste pertsonalgora. Intxaustik behin eta berriro dio kalitate pertsonalari garrantzi handia eman behar zaiola. "Horrelako proiektuak aurrera ateratzeko jendearen borondatea, gogoa, nahia eta jarrera positiboa eta baikorra ezinbestekoak dira. Hori da erabakiorrena". Zentro batek ISO ziurtagiria eduki dezake eta gauzak gestio-natzeko ona izan daiteke, baina jendeak prest egon behar du hori ongi gara dadin.

ISO 9002 ziurtagiria

Kike Intxaustik azaldu bezala, kalitatea hobetzeko esfortzu horretan hainbat arlo jorratzen dituzte. Gestioa hobetzeko aseguramendu sistema bat ezartzen dutela aipatu du, eta berau ISO 9002 ziurtagiria lortzera bideratua dagoela ere esan dugu. Baina zer da ISO 9002?

ISO ziurtagiri bat da. Munduan erabiltzen den aseguramendu sistema bat da, funtzionamendu araudi bat. Araudi

GAIA Kalitatea lortzeko bidean

horietako bat ISO 9000 da eta honi lotutako arau guztiak kalitatearen ingurukoak dira. ISO 9000ren barruan 9001, 9002, 9003... daude eta bakoitzak bere berezitasunak ditu. Hezkuntza mailan ISO 9002 ziurtagiria erabiltzen da.

Zer suposatzen du ikastetxe batek ISO 9002 ziurtagiria edukitzeak? Ikastetxeko dokumentuetan idatzita dagoen guztia egia dela frogatzen duela. Hau da, ikastetxeak esaten duena eta egiten duena bat datozela ziurtatzen du ISO 9002k. Ikastetxeak egiten duen guztia, goitik beheraino idatzi eta zehaztu egiten du eta horrek gauzak frogatzeko eta egiaztatzeko balio dio ondoren. Azken finean, ISO 9002k erakundea antolatu egiten du nork, zer, noiz eta nola egin behar duen definituz.

Kalitateari lotuta dagoen ziurtagiri hau lortzeko prozedura bat jarraitu behar da. Mundu mailako ziurtagiria denez, hainbat estatutako ordezkari instituzionalek osatzen duten erakunde ofizial bat dago eta hemen zehazten da kalitatea izateko zein baldintza bete

"ISO 9002 prozesuetan zentratzen da eta EFQM eredu europarrak, berriz, zentroa bere osotasunean hartzen du"



behar diren. ISO 9002ren kasuan 20 betekizun daude finkaturik eta horiek guztiak bete behar dira kalitatearen ziurtagiri hau lortzeko.

- 1.- Sarrera
- 2.- Zuzendaritzaren erantzukizunak.
- 3.- Kalitatearen sistema.
- 4.- Kontratuaren berrikuspena.
- 5.- Dokumentazioaren eta datuen kontrola.
- 6.- Erosketak.
- 7.- Bezeroak hornitutako produktuen kontrola.
- 8.- Identifikazio eta trazagarritasuna.
- 9.- Prozesuen kontrola.
- 10.- Ikuskapena eta egiaztapena.
- 11.- Neurketa-baliabideen kontrola.
- 12.- Ikuskapen eta egiaztapeneko egoera.
- 13.- Adostu gabeko produktuen kontrola.
- 14.- Zuzenketako eta prebentziozko ekintzak.
- 15.- Artxibatze, gordetze eta eskuratzea.
- 16.- Kalitate-erregistroen kontrola.
- 17.- Kalitatearen barruko auditoretzak.
- 18.- Formazioa.
- 19.- Salmenta ondoko zerbitzua.
- 20.- Estatistika-teknikak.

Beraz, ISO 9002 ziurtagiria lortu nahi duen orok 20 baldintza hauek bete behar ditu. Horretarako, lehenengo gauza dokumentu bat betetzea izango da. 20 baldintza edo puntu horien inguruko informazio guztia zehaztu behar da dokumentu hauek. Eta ondoren, kanpoko enpresa bati hots egiten zaio berauek azter ditzan. Bere lana 20 puntu horiek nola dauden ikustea izango da eta baldintzak betetzen badira, ziurtagiria ematea. Estatu espainiarrean ikuskaritza lan hau egiten duen enpresa AENOR

da eta Hego Euskal Herrian ere bai.

Baina gauzak ez dira horrekin amaitzen, horrek ez baitu kalitatearen iraupena bermatzen. Ziurtagiria eman ondoren, sei hilabetera, AENOR enpresako ordezkaria auditoria bat egitera pasatzen da ikastetxetik edo enpresatik. Auditoria honetan dena goitik behera aztertzen du, edozein dokumentu eska dezakeelarik. Akatsik aurkitzen ez badu, hurrengo auditoria urtebetera izaten da. Baina akatsen bat topatzen badu, sei hilabetera berriro itzultzen da akatsa konpondu den ala ez ikusteko. Handik aurrera, auditoreak urtero errepikatzen dira.

Prozedura honek hiru urte irauten du. Behin denbora hori pasa ondoren, ziurtagiria berriro edo kendu egiten dute.

EFQM eta ISOren arteko ezberdintasunak

- ISO 9002 prozesuetan zentratzen da, hau da, gauzak benetan hor idatzita dauden bezala egiten direla ziurtatzen du. Orduan, zentroko prozesu guztiak (administratiboak, matrikulazio prozesua, ikasketa prozesua, klaseak nola ematen diren, nola ebaluatzen den, nola bideratzen den tutoretza...), paper batean bilduta daude eta zentroko prozesu guztiak hor idatzita dagoen bezala egiten dira. Beraz, gauzei antolaketa bat jartzen hasten da.

Bestalde, gestioaren eredu europarrak (EFQMk) ere lantzen ditu proze-

suak, baina eredu honek zentroaren ikuspegi zabalagoa du, hots, ez da prozesuetan soilik zentratzen, zentroa bere osotasunean nola gestionatzen den ere arduratzen da. Pertsonalgora, bezeroa, emaitza akademikoak, emaitza ekonomikoak eta abar aintzat hartzen ditu.

- EFQM gestioaren kalitatea gartzeko sistema bat da eta ISO produktua eta produkzio sistema gartzeko sistema.

- ISOren helburua produktu eta zerbitzuen kalitatean maila uniformeak eta egonkorak bermatzea da. Modelu europarrak, berriz, etengabeko hobekuntza bultzatzen du.

- ISO industrian eta industriarako sortu ziren arauak dira, eta arau horiek hezkuntzara egokitu behar dira, horrek ikaragarritzko lana suposatzen duelarik.

Dena dela, eredu biak osagarriak dira. ISO 9002 tresna egokia da zentroa antolatzen hasteko, abiapuntu egokia da. Baina garrantzitsuena horretara mugatuta ez gelditzea da, baizik eta gestioaren eredu europarrak (EFQMk) biltzen dituen arloetara zabaltzea eta hauek ere kontuan izatea. Baina aldi berean, eredu honen ondorioz burututako autoebaluaketei zukua ateratzea funtsezkoa da. Hau da, ikusten diren hobekuntzak gestionatu eta burutu egin behar dira, eta horretarako ISO sistema aproposa da.



Martuteneko B.H. Institutuaren esperientzia

“Gure helburua aseguramendu sistema honekin ikasleei zerbitzu egokiago bat ematea da”

Martuteneko B. H. Institutuan Batxilergoa eta Lanbide Heziketako Zikloak ikas daitezke gaur egun. Azken hauen artean bai erdi mailakoak eta baita goi mailakoak ere. Guztira 240 ikasle inguru dabilta eta denak D ereduan.

Juantxo Mendikute kalitateari lotutako gai guztietan zuzendaritzaren ordezkaria da eta ISO 9002ren inguruko prozeduran hasieratik murgildu da. Horregatik jo dugu berarengana.

Noiz hasi zineten kalitateaz kezkatzen eta horren inguruan zerbaite egiten?

Orain dela lau pabost urte hasi ginen kalitateari buruz zerbaite entzuten. EHUK Miramar jauregian antolatzen dituen ikastarotara joan ginen zenbait irakasle eta han entzun genituen kalitateari buruzko lehen gauzak. Interesgarria iruditu zitzaizgun, eta ondoren liburuak irakurtzen eta ikastaro gehiagotara joaten hasi ginen.

Zuek ikastetxe batean zaudete eta ez ohiko enpresa batean. Nola planteatu zenuten kalitatearen gaia ikastetxe batean?

Hainbat galdera planteatzen hasi ginen: gu zertarako gaude ikastetxe honetan? Soldata bat kobratzeko ala gure helburua beste zerbaite da? Zein da ikastetxearen helburua?

Gure artean hausnartu ondoren orritxo batzuetan Martuteneko B. H. Institutuaren eginbehar nagusienak zein ziren idazten saiatu ginen. Ondorio bezala betebehar garrantzitsuena zera zela ikusi genuen: ikasleak giro ireki batean hezitzea errespetua bermatuz eta etekin akademiko bat ateraz. Hori guztia kalitatearen filosofiaren barnean sartzen da, eta horrela hasi ginen.

Eta zer da kalitatearen filosofia?

Kalitatearen filosofiak esan nahi du zerbaite egin aurretik zertarako den jakin behar dela, ez baitu zentzurik egiteagatik egiteak. Beraz, gure helburua lehen aipatu dugun heziketa ematea izanik, hori ahalik eta modurik egokienean bideratu nahi genuen. Horretarako, kalitate ziurtagiria

baliagarri suerta zitekeela ikusi genuen. Filosofia honen barruan egiten duguna hobetu daitekeela eta horren aukera gure esku dagoela ikusi genuen.

Zein izan zen eman zenuten lehen urratsa?

Gipuzkoako Lanbide Heziketako ikastetxe asko genbiltzan gai honen inguruan eta Foro Gipuzkoa XXI horrelako proiektuak bultzatzen ari zen. Horrela, Tolosa, Usurbil, Bergara eta Martuteneko eskolak elkartu eta gure aseguramendu sistema eratzen hasi ginen. Orain dela hiru urte hasi ginen honekin, 1996an.

Nola bideratu zenuten sistema horren eraketa?

Lau ikastetxeetako zuzendariak eta zuzendaritza ordezkariak hamabostean behin elkartzen ginen Foro Gipuzkoa XXIeko aholkulari batekin. Pertsona honek ISO 9002 sistema ezagutzen zuen, baina hezkuntza mundua ez.

ISO 9002 ziurtagiria lortzeko zehaztuta zeuden baldintza guztiak industria hizkuntzan zeuden, eta gu hezkuntzara birmoldatzen hasi ginen. Adibidez, hirugarren eskaera kontratuen berrikuspena da eta hori guretzat oso mundu zabala zen. Enpresa mailan nahiko argi dago nor den hornitzailea, bezeroa eta kontratu batzuk daude tartean. Baina guk zer kontratatzen dugu? Guk zera definitu genuen: gure ikastetxera ikasleak etortzen dira, ikasturte hasieran matrikula bat egiten dute eta horrekin ikastetxea ikasle horiei kurtsu bat ematera konprometitzen da. Beraz, kontratua hori da, ikaslea eta eskolaren arteko harremana, matrikularen truke ikastetxeak kurtsu bat eskaintzen dio.

Horrela, hezkuntzara egokitutako dokumentua osatu zenuten. Eta nola helarazi zenieten ikastetxeko langileei?

Bilera horietan egiten genuenaren berri ematen genien beti gainontzekoei. Gainera, guk dokumentua osatu genuen, baina

hori bete egin behar zen. Hau da, ikastetxe bakoitzak puntu bakoitza definitu behar zuen. Orduan, zuzendaria eta biok puntu konkretu baten egoera nolakoa zen idazten genuen, baina ondoren postu edo lan hori betetzen zuten pertsonengana jotzen genuen.

Adibidez, matrikulazio prozesuan atezainak eta idazkaritzako jendeak parte hartzen dute eta horiek ere zeresana izango dute. Beraz, guk matrikulazio prozesuari buruz idazten genuena hauei pasatzen genien egoki zezaten, dena ezaba zezaten, beraien ikuspuntua idatz zezaten...

Horrela guztion parte hartzea bermatu dugu eta guztion iritzia idatziz jaso. Horrekin guztiarekin osatu dugu dokumentazioa.

Zenbat denbora behar izan duzue horretarako?

Bi urte egon gara horretan. 1996ko urritik 1998ko maiatzera arte.

Eta ondoren, zer?

Urtarrilean AENORi deitu genion eta gure dokumentazioa bidali. Horrela, baldintza minimoak betetzen dituzun ala ez ikusten dute eta betez gero, auditoria eguna finkatzen da. Hala ere, aurretik guk barne auditoria bat egin genuen. Hau da, ikastetxeko jendeak zentzura barrura begiratu eta zein akats zeuden aztertu zuen horiek konpontzen saiatzeko. Eta ondoren, AENOREkoak etorri ziren beraien auditoria egitera.

Zer egiten dute auditoria horretan?

Ikastetxea goitik behera begiratzen dute: getan sar daitezke, nahi duten paper oro begiratzeko eskubidea dute... Oso gogorra da, oso gogorra baita irakasleari agian kanpoko bat etorri eta gelara sartuko dela esatea.

Ikuskaritza honen ondoren dokumentazioan esaten dena betetzen dugun ala ez egiaztatzen dute.

Dena dokumentazioan zehaztuta dago, orduan.



Juantxo MENDIKUTE

Bai, hala da. Dokumentazioa egiterakoan ikastetxea goitik behera aztertzen dugu. ISOk gure erakundea antolatu, egokitu, aztertu eta definitzeko balio izan digu. Orain definitua dugu nork, zer, noiz eta nola egin behar duen. Horretan laguntzen dizu, egiten duzuna definitzen, nahiz eta horrek ez duen esan nahi ondo egiten duzunik. Positiboa da plagentza bat daukazula eta bakoitzak definituta daukala hilabetero egin behar duena. Eginkizun bakoitzak bere arduraduna du.

Baina dena hain zehaztuta badago, malgutasunik gelditzen al da aldaketak egiteko? Ez al dago inprobisasio-arentzat lekurik?

Bai, badago. Aurreikusitakoa aldatzeko aukera badago, horretarako ez dago arazorik, baina aldaketa guztiak idatzi egin behar dira. Izan ere, ISOk egiten duzun guztia idaztera behartzen zaitu, esaten duzuna egiten duzula bermatzeko. Gainera, prozesu nagusienak zehaztuta ditugunez, edonork proposa ditzake aldaketak.

Antolaketa aldetik zer aportatu dizue ISOk?

Programazioak egiterakoan hobekuntzak ekarri dizkigu. Orain arte agian irakasle batek bi orriko programazioa egiten zuen eta beste batek ehuneko. Izugarritzko desoreka zegoen. Orain, aldiz, batzorde pedagogikoak bideraturik akordio batzuetara iritsi gara eta programazioek zein gutxieneko izan behar dituzten zehaztuta daukagu. Azterketa bat zuzentzeko adibidez, homogeneizazio eta kalifikazio siste-

mak ezarri dira.

Bestalde, udan irakasleontzako koaderno bat egin genuen, guztiontzat berdina. Irakasleok antolatu eta osatu dugun koaderno da eta oso tresna garrantzitsua.

ISOz gain, EFQM eredu europarra ere erabiltzen da kalitatearen gestiorako. Zuek baliatu al zarete eredu honetaz?

Bai, ISOekin hasi baino lehenago pare bat autoebaluaketa egin genituen. Horrela ikastetxea goitik beheraino aztertu genuen eta puntu ahulak zein ziren ikusi. Baina autoebaluazio hori egiten jardun ginen guztiok hurrengo ikasturtean ez ginen gogoratzen atera genituen emaitzez, ez baikeuen sistematizatu. Nahiz eta autoebaluazioa tresna egokia izan, sistematizatu gabe baldin badago eta pertsona batzuen gain bakarrik gelditzen bada, ez du askorako balio.

Dena dela, eredu biak osagarriak dira eta elkarri lotuta doaz. ISOk edo sistematizazioak datorren ikasturterako helburu nagusiak, horiek betetzeko ekintzak eta abar finkatzeko balio du. Eta horiek guztiak autoebaluazioa egin ondoren ateratzen dira, hots, EFQM sistemarekin. Beraz, biak lotuta daude, ez da bata bestea baino hobe.

Zein balorazio egiten duzu daramazuen prozesu guztiaz zuek? Merezki al du?

Iritzi ezberdinak daude, baina nire ustez bai. Esfortzu handia eskatzen du, lan asko eta ordu pila bat, baina merezi du. Horrelako sistematizazio batek ikasleei begira hobekuntzak ekarriko dituela sinesten dugu eta horregatik gaude istorio honetan.

Ni honen defendatzaile sutsua naiz, sistema honetan sinesten dut eta ez dut uste burokrazia hutsa denik. Burokrazia zenbait pertsonaren artean dokumentu pila bat egitea eta ziurtagiria lortzea da. Baina benetan planifikazio egoki baten ondorioz lortzen dira emaitza egokiak. Eta gure kasuan denon parte hartzea bultzatu dugu hasieratik, denok inplikatu gara. Eta ez pentsa erraza denik. Gogorra da kanpoko norbait zure gelara sartzea eta gauzak nola egin behar diren esatea. Mentalizatu egin behar da. Garrantzitsua da barnean giro hori lortzea eta irakasleria, ikasleria zein gainerako langileria prest egotea.

Honek guztiak irakasleen gaineko

kontrol gehiago suposatzen du. Preionatuak sentitu al dira?

Bai, bai, asko, baina prozesua autokontrola bezala definitu dugu. Sarritan esan da "orain beste batek esan behar al digu nola egin behar dugun lan? Orain arte egiten genuena ez al zegoen ongi?".

Inork ez du esan orain arte egindakoa gaizki zegoenik. Alderantziz, orain arte egiten zena paperean islatzea besterik ez da izan. Programazioa idatzi da, sekuentziak zehaztu, noiz zer egin behar den finkatu, zein material erabili behar den eta material hori non dagoen. Hau guztia idatzita egonik, programazioa jarraitzeko modua dago, eta ordezeko bat etortzen bada, aurreko irakaslearen lanarekin jarrai dezake.

Bestalde, erreklamazio kutxa ere edonoren eskura dago eta benetan hori da gauzak bideratzeko modurik egokiena. Erreklamazioa gauzatu ondoren, prozedura bat definitua dago: kaltetuak elkartu, egoera aztertu eta epe baten barruan erantzun bat eman behar dute proposamen idatzi batekin.

ISO 9002 kalitate ziurtagiria edukitzeak eraginik ba al du matrikulazioan?

Momentuz guk ez dugu nabaritu. Baina eragina izan dezakeela uste dut. Gizarte mailan eta enpresen munduan kalitate ziurtagiria dutenek sinesgarritasun gehiago ematen digute, gauzak ongi antolatuta daukatala bermatzen baitigute. Eta horrek merkatua zabaltzen du.

Ikastetxeen kasuan ere antzeko zerbait gertatuko da. Gurasoek ziurtagiria duen ikastetxe batera jotzen badute, bertan dena zehatz-mehatz erakutsiko diete. Adibidez, niri Teknologiako lehenengo kurtsoan matrikulatu nahi duela esaten badit guraso edo ikasle batek, kurtso hori nola dagoen antolatuta esango diot, zein den helburua, zein den egitura, zein baldintza bete behar dituen ikasleak, zein ikasgai jasoko dituen, ikasgai bakoitzean zenbat ordu izango dituen, zer eduki minimo jasoko dituen... Gurasoek dena jakin dezakete eta ikastetxeak aseguramendu sistema baten barruan dagoela ziurtatzen dio. Aseguramendu hau ez duten ikastetxe batean ere gauza berdinak kontu ditzakete, baina ez dakigu egia den ala ez, frogatzeko modurik ez dutelako.

Hala ere, gure helburua ez da aseguramendu sistema bat edukitzea ikasle gehi- go izateko, dauzkagun ikasleei zerbitzu egokiago bat ematea baizik. Hori da helburu nagusia eta ahaztu ezin duguna.


elkarriketa

MARINUS VADER

“

Konbentziturik gaude haurrek batzuek besteengandik izugarri ikas dezaketela. Beraz, beraien arteko harreman bideak sustatzen dituen eraikuntza eta praktika pedagogikoa antolatzen saiatzen gara

”



Marinus VADER. Pedagogo eta Madrilgo Eskola Holandarreko zuzendaria



**“Denok
gara
kontziente
eskolan
talentu asko
alperrik
galtzen direla
eta haurrak
hiritar
burujabeak
izateko
formaziotik
urrun
gabiltzala ”**

Aniztasuna eguneroko hizpide izan zen *Seaskak* Miarritzen antolatu zituen jardunaldietan. Haietako batean haurren arteko dibertsitatea eta ezberdintasuna gordin gordinean jasotzen dituen antolaketaz, eskola txikiek eskaintzen duten batere osperik gabeko ereduaz eta baita ere administrazioaren zigortzat hartuak diren adin askotako haur taldeez aritu zen aitzitik horrelako taldeen defendatzaile eta bultzatzaile den Marinus Vader, irakasle holandarra. Herbeheretan talde heterogeneoak ardatz zituen eskola batean urte askotan aritua, 4-12 urte bitarteko haurrak hartzen dituen Madrilgo oinarrizko eskola nederlanfonoko zuzendaria da gaur egun. Nafarroako ikastola txikiekin harremanetan dago, askotan egon delarik berauetan eta hauek ere bai bere eskolan.

Herbeheretako eskoletan haur talde heterogeneoak eratzea hain zabaldua al dago?

Nik ezagutzen dudanez Belgikako Lovaina inguruan, mugimendu pedagogiko oso bizia dagoen zonaldean horrelako adibide ugari dago. Holandan, berriz, Lehen Hezkuntzako eskola guztietako %15ak daude talde heterogeneoen inguruan antolaturik. Haue-tariko asko Euskal Herrikoen antzera, haur kopuru txikiak eraginda osatzen

dira, baina badira era horretako anto-lakuntzaren aldeko aukera egiten dutenak ere. Neroni horrelako 300 bat haurren inguruko eskola bateko zuzen-daria izana naiz.

Beraz, badaude talde heterogeneoak osatzera behartuta dauden eskolak (hauetariko askok ez dute heterogene-otasunean funtzionatzen), talde hete-rogeneoen aldeko hautua egiten dute-nak, talde homogeenotan (mailaka banatuak) oinarritzen direnak eta talde konbinatuak dituztenak (4-8 bitartean nahasian eta 8-12 bitartean adineka banatuak).

Bigarren Hezkuntzan, aldiz, ez dago aniztasun hau, denak talde homogee-otan biltzen dira (nahiz eta irakasle bakan batzuk talde heterogeneoekin lan egin zenbaitetan).

Zergatik ez, jeneralean, hobes-ten diren gela homogeenok aukeratu?

Nire ustez, irakaskuntza sistema ia gehienak uniformetasunean eta taldeen kontrolaren oinarrietan eratu dira. Honen adibidexa batzuk datoz 97an berrargitaratu zen León Frapiéren “La Maternelle” liburuan: “Ez dago geletan eta pasabidetan ordena mantentzea baino gauza hoberik. Irakasleak bere mahaitik irakasten ditu gai garrantzi-tsuena: irakurketa, idazketa, mate-matikak eta lengoia. Haurra izaten da irakaslearengana jo behar duena eta ilaran jarrita itxaron behar duena bere txanda iritsi arte”.

Gaur egun ere, tamalez, horrelakoak ugariak dira. Kontrolatu nahi honen eta proiektuaren erosotasunaren ondo-rio zuzena da mailaka programaturiko gaien sistema, talde homogeenoen sis-tema, alegia. Haur guztientzat eta batera egiten da azalpen bera, liburua-ren orrialde berebanean, denek egun berean beregana dezaten eta berriz ere biharamunean hurrengo orrialdeko kontzeptua ikas dezaten. Sistema hau irakaslearentzat da erosoena, bai, baina

ez gelarentzat eta inoiz ere ez da ahal bezain probetxugarria ikasleentzat. Non dago irakasle horien haurren garapenari buruzko kontzientzia? Inon ere zalantzan jartzen ez den haurren mailen arteko desberdintasuna golpez erremediatzen dute era horretan, baina baita haur ugari porrotera eramanez ere.


Esaizkiguzu talde heterogeneoak antolatzearen beste abantaila nagusiak.

Ni neroneko talde homogeneoan eskolatua izan nintzen eta orduko Lehen Hezkuntzaren denboraldi osoan (6-12 urte bitartean) nire gelako kideek eta nik hasieran hartu genuen "estatusa" (heldutasunagatik, itxura fisikoagatik, izaeragatik, trebeziagatik...) mantendu genuen bukaerara arte, ez baitzen inongo aldaketarik jazo bitartean. Nire ustez, klub itxi batzuen tankerako taldeak bihurtzen dira talde homogeneoak.

Adin ezberdinetako haurren ezaugarriak elkar ekintzarako eta garapenerako eskaintzen duten aukera baztertua desabantaila ikaragarria dela uste dut.

Talde nahasietan ereduak eta dibertsitatea biderkatu egiten dira eta eskolako giroa aberastu. Adin eta gaitasun ezberdineko haurren arteko elkar ekintza nabarmen areagotzen da, haurrak aktiboagoak dira, gazteenek zaharagoekin ikasten dute, beren arazoei aterabide bat aurkitzeko gaitasuna eta sormena azaleratu behar dituzte, eta zaharrenek, berriz, beren jakinduria azaltzeko eta ulertarazteko adierazpen molde berriak sortzen dituzte.

Irakasleek ere oso bestelako rola betetzen dute. Hauen betekizuna asko malgutzen da, ez da ia gelako martxaren gunea, talde osoei zuzentzen zaizkien azalpenetan baino banakako aktibitateetan egiten dute lana, haurren arteko ahalmen anitzez kontziente behar dute izan eta horren arabera jardun. Haurrak autonomoak dira eta ez



dute irakaslearekiko dependentziarik, irakasle baino laguna bezala ikusten dute.

Zein oinarri teorikotan jarri dituzue horrelako eskolaren zimenduak?

Eskola baten eginkizun garrantzitsuenetakoa haurren garapen prozesua ez eragozte da, eta hau horrela izan dadin oinarritzko printzipio pedagogikoei loturiko antolakuntza eraiki behar da. Gure kasuan euskarri pedagogiko horiek dibertsitatea eta aniztasuna gehien faboratu duten pentsalari eta eskoletatik hartu ditugu:

Hasteko, Peter Petersen alemaniarra, Genako eskola planifikatuaren egileak dio haurra gizaki ordezkazina bezala sartzeko eskolan funtsezko talde batean. Hemen besteei laguntzea eskatzen zaio haurrari eta lehiaketa guztiz baztertzen da. 4-8 urte bitartekoentzat joko aitortzen da funtsezko elementu bezala eta 8-12 urte artekoentzat, berriz, interes gunea. Azkenik, lau ikasketa egoera gailentzen ditu: joko, lana, ingurua eta ospakizunak.

Maria Montesorik zioen haurrek garapen etapa batera iritsitakoan aurkikuntzak egiteko beharra sentitzen dutela, eta haurrak motibatze material didaktiko ahal bezain erakargarria eskuratzea beharrezkoa zela. Bere

eskolan ez dira haurrak mailaka banatzen eta irakasleak ikasketa prozesuaren gida izan beharrean haurren laguntzaile bihurtzen dira.

Rudof Steinerrek haurren sormenezko formakuntzari eta bizitza sozialari ematen zion garrantzia. Hezkuntzakezomen luke oso alde intelektualera zuzendua egon behar.

Celestin Freinetek zioen haurrek munduaz duten esperientziatik abiatuta hobeki ikasten dutela, inposatzen zaien ikasketa gai batetik hasita baino. Haurrekin izandako elkarriketetatik abiatzen zen bera hitz egiten, idazten eta irakurtzen irakasteko.

Helen Parkhurst, EEBBtako Dalton eskolakoarentzat ikasleari ezinbestekoak zaizkio independentzia eta nozioak era autonomoan bereganatzeko aukera izatea. Beraz, eskolan amankomunean egiten den lanaz aparte, nahi-tazkoa behar luke banakako lan egiteak ere.

Teorizatzaile hauei guztiei gehitu beharko genieke 70eko hamarkadan Holandan hasi zen irakaskuntza klasikoaren berrikuntza.

Zein ekarpen egin zituen berrikuntza hark?

Garai hartan hezkuntzaren inguruko politika eraikitzaile bat ezarri zuen Hezkuntza Ministeritzak. Hark lurral-



“Zorionez, mende honen bukaeran oso garapen itxaropentsu eta handia antzematen dugu, inteligentzia anitzaren printzipioa eskolan aplikatze-arena”

de ordezkariak bakoitzean lanak egiteko parada eman zien zuzendari eta irakasleei, interes handia sortuz, eta bide hortatik informazio ugari iritsi zen eskoletara. Eskola berri bat eraiki nahi zen belaunaldi berri batentzat eta batez beste horrelako ekarpenak egin zituen: irakaskuntzak ikasle guztien etenik gabeko garapena ahalbidetu behar zuen, ikasleek beste hurrekin elkarlanean ikasiko zuten bakoitzak bere erritmoan, eta norberak zituen gaitasunetan aurrera egiteko aukera izango zuen. Hurrek ez zuketean imitazioz jokatu behar, asmatzaile eta sortzaile gisa baizik, eta beraz, buruaz eta eskuez ere baliatzen ikasi behar zuten. Hurrek igarotzen zituzten etapak kontuan hartuko ziren eta zituzten zailtasunez ohartu eta konponbidea aurkitzen saiatu. Eskolak etxekoekin eta auzoarekin ere lotura izango zuen jatorriak eragindako ezberdintasunak berdintzen saiatuz.

Zein da gaurko egoera? Non gelditu dira ideia horiek?

30 urteren ondoren, etsipenez oroitzen gara mugimendu haren garai hoberenetaz. Beste arlo askotan gertatzen den bezala, berrikuntza haien instituzionalizatzeko bidea moztu zien hainbat ekimeni eta geroz eta azkarrago erretzeko arriskuan daude. Denok gara kontziente eskolan talentu asko alferrik galtzen direla eta haurrak hiritar burujabeak izateko formaziotik urrun gabiltzala. Hala ere, gaur egun kriminalitateak, zentzurik gabeko bortizkeriak, ingurugiroaren egoeraren okertzeak, pertsonen arteko desberdintasunak eta miseriak egin duten hedatzeak irakaskuntzaren berrikuntza birplantea arazten digutela beste behin ere. Irakaskuntzan eta haren politikan aire berriak ekarriko dituen buruak behar dira. Alabaina, berrikuntza horrek ez luke aitzindari horien menpe egon behar. Aldiz, proiektu horiek kemenez, idealismoz eta izpiri-

tu militantez bultzatu eta baliabideez zuzkitu beharko lituzkete.

Bestalde eta zorionez, mende honen bukaeran oso garapen itxaropentsu eta handia antzematen dugu, inteligentzia anitzaren printzipioa eskolan aplikatzearena. Badakigu ikasleak arlo batean edo bestean azkarrak direla, hizkuntzetan trebea ez dena teknika arloan abila izan daitekeela, eta matematikan ona ez dena marrazkilari ikusgarria dela agian. Ez al da bada, eskolaren zeregina gaitasun horientzat garapen bidea zabaltzea? Beharrezkoak dira aniztasun hori txertatuko duten programa eta metodo berriak. Talde heterogeneoak aintzat hartzen dute puntu hori.

Nola hasi talde nahasiekin lanean?

Orain arte aipatutako guztia talde homogeneoetan ere aplikatzeko modukoa da, baina talde heterogeneoen antolakuntza konplexuagoa bihurtzen da. Ez dago formula bakarrik, antolatzeko mila era sor daitezke, baina lehen lehenik klaustro osoak adostutako proiektu bat behar da eskuetan eta hau ez da bi egunetan lortzen den gauza.

Alferrikakoa izaten da hierarkikoki inposatutako agindua izatea, horrek ez du inoiz funtzionatu izan. Gutxienez urtebeteko prestaketa lana edo gehiago behar izaten da klaustroa ildo berrian sendotzeko eta erabakitzeko nolako eta zeren arabera antolamendu espaziala egin, ordutegia, curriculum edo lan proiektua, material didaktikoa, programazioak...

Zer esanik ez horrelako astinketarako irakasle gartsuak, konprometituak, ongi prestatuak, beren gaitasunetan sinesten dutenak, iradokizun berriak aurkituko dituztenak, goitik eta kanpotik datozen presioek eragiten duten desilusioari aurre egingo diotenak behar direla derrigorrez. Funtsezkoa da irakasleen arteko hausnarketa, mal-

guntasuna eta komunikazioa arazo handiak eta txikixeagoak ere mahai gainean jartzeko. Honek ematen duen konfindantzaz ekintza pedagogikoak busti ahal izango baitira eta irekitasun hau ez duen irakaslearen eragina irakaskuntzaren kalitateak pairatzen baitu, azken finean. Irakasle talde egokirik gabe antolaketa guztia eror daiteke.

Nola neurtu irakaskuntzaren kalitatea?

Eskola bateko irakaskuntzaren kalitatea ez da neurtzen ikasleen kopuruaz, ez irakasleenaz, ez eta batera dauden haurren adinen kopuruaz. Kalitatearen zamarik handiena ikuspuntu pedagogikoak eta didaktikoak darama, talde horren antolaketa eta irakasleriaren arteko komunikazioak, hain zuzen ere. Kalitate oneko irakaskuntza egiteak segurtasuna ematen die irakasleei eta hauek, era berean, beren "bezeroei", hau da, gurasoei.

Giro honek irakaskuntzaren hobekuntzan jarraitzeko behar den lasaitasuna eta konfidantza bermatzen du. Irakaskuntzaren kalitatea lan eskematan eta eskolen arteko kontaktuetan antzematen da: materialen ekoizpen kolektiboa, eskolen arteko trukeak, elkarlanerako proiektuak, prestakuntza amankomunak... Ekintza hauek gainera haur eta irakasleen esperientziak, iritziak, ikusmoldeak eta itxaropenak zabaltzen laguntzen dute.

Programazioa eta materiala aipatu dituzu, besteak beste. Nolakoak izan behar dute?

Hezkuntzak garapena sustatu behar du, haurren osoko garapena erraztu, bai garapen kognitiboa eta bai bere pertsonalitatearena ere. Bi alor hauen aurrean irakasleak artekari izan behar luke, bera baita haurren babeslea eta gure ondare kulturalaren eramailea. Holandako oinarrizko hezkuntzaren legeak bete beharrekoak diren gaiak arautzen ditu (Historia, Geografia,

Natur-Zientziak...), baina ez du edukiei buruz ezer esaten.

Beraz, eskola bakoitzeko klaustroak aukeratu behar ditu haien haurren interesak, beharrak eta elkarbizitzak dituen eskakizunak uztartuz, eta gurasoei informatu gero. Honetarako, hiru arlo hauetan hartu beharko dituzte hainbat erabaki galdera hauei erantzunez: Kulturaren transmisioa dela eta zein gai izango lirateke esanguratsuenak? Haurren egoeren analisisatik abiatuta, zein gai indartu beharko genuke? Haur txikien garapen eta ikasketa prozesuak kontuan hartuz, nola ekin?


Hemen klaustroak adostu beharko du zein epetako programazioak eta lanak proposatzen zaizkien haurrei. Gurean ez da epe finkorik izaten, baina gehienetan astebetekoak izaten dira. Programazio hori haurren motibapen eta beharretatik ateratako elementuz osatzen da eta aste hasieran erakusten zaie. Horrela badakite aste horretan zer egin eta ikasi behar duten, baina bakoitzak nahi duenean eta nahi duen erritmoan egingo du.

Oinarrizko eskolek haurraren zerbitzuan egon behar dute eta ez alderantziz. Horregatik, eskolako curriculumak edo lan proiektuak oso dokumentu malgua izan behar luke eta ez betirako finkatuta gelditzen den zerbitzu.

Gurasoek parte hartzen al dute lan proiektu honetan?

Kasu honetan ez, lan hau klaustroak egiten baitu. Baina eskolan parte hartzen dute, tailerretan, hain zuzen ere. Hau da, egurrarekin lan egiten duten gurasoak daude eta hauekin tailerrak muntatu ditugu arratsaldetarako. Lan horretan profesionalak dira eta haurrei ongi erakuts diezaiekete, irakasleek ez bezala. Zentzu honetan, asko egin dugu lan gurasoekin.

Baina irakaskuntzako gaietan ez, nahiago dugu hori profesionalen eskuetan uztea, hau da, irakasleen eskuetan. Zenbait urtetan gurasoekin lan egin



dugu geletan, baina ez daukate haurraren garapenari buruzko ezagutza asko. Eta horregatik erabaki genuen gai profesionaletan lanik ez egitea gurasoekin.

Nola erlazionatzen dira haurrak?

Konbentziturik gaude haurrek batzuek besteengandik izugarri ikas dezaketela. Beraz, beraien arteko harreman bideak sustatzen dituen eraikuntza eta praktika pedagogikoa antolatzen saiatzen gara. Honetan eskolaren diseinuak ere badu bere garrantzia. Lehengo eskolan, adibidez, ikastetxearen erdian genuen liburategia eta ormak mugikorrek ziren, momentuan komeni den tamainako gelak osatu ahal izateko. Haurrek jarduten duten gelak irekiak ziren, haurrak beraiek eta baita irakasleak ere (hau klaustroan adostutako puntua da) batetik bestera joan zitezkeen zituzten beharrek hala eskatzen zutenean. Horrela entzunda anarkia bat dela pentsa daiteke, baina ez, eta hori guregana etortzen diren gurasoek frogatzen dute. Etortzen direnean ez diegu uzten



“Adin ezberdinetako haurren ezaugarriak elkar ekintzarako eta garapenerako eskaintzen duten aukera baztertzea desabantaila ikaragarria dela uste dut”

ordubete baino gutxiago egoten, goiz edo arratsalde osoa baizik. Bestela, ez dute benetan nola lan egiten dugun ikusteko adina denborarik izaten.

Eta zer ikusten dute? Nolako aktibitatea dago eskolan?

Haurrak taldetan eseritzen dira, ez dira talde isilak, elkarrekintza handia dago, taldetik taldera joaten dira kontsultatzera, galdetzera, laguntza eskatzera... eta honetan bultzatzen zaie eskolan sartzen diren unetik jarrera hori bereganatu eta natural bihurtu arte, geroz eta era autonomoagoan funtzionatu arte.

Elkarlan horretatik sortzen dira beraien interesak bultzatutako proposamenak. Ikusita nago haur zaharrentariko batzuek nola azaltzen zizkieten zatikiak 4-5 urteko haur talde bati eta arrakasta osoz, gainera. Haur txikien mailako esaldi eta hitzak asmatzen dituzte eta funtzionatzen du, txikiek ulertzen dute. Gainera, beti ez dira lagun berdineganako joaten gauzak galdetzera eta horregatik elkar ekintza handia sortzen da.


Adin ezberdinetako haurren artean sortzen diren gatazkak

nola konpontzen dira?

Antolakuntza honetako irakaskuntzan daramatzadan 25 urtetan ez dut bat bakarrik ere gogoratzen, ez eta jolas lekuan ere. Eguneroko jardunean ere ez dago abusurik zaharragoen aldetik, elkarrenganako errespetu handia dute. Nik uste lehentasunezko baldintza betez gero, hau da, edozein haurrek pozik joan behar duela eskolara, eta besteekin erlazionatzeko eta besteengana jotzeko askatasuna edukiz gero, ez dela gatazkarik sortzen.

Nola moldatzen dira Bigarren Hezkuntzako talde homogeneotara pasatzen direnean?

Egia esateko, ez dute arazo larriegirik izaten. Hala ere, ezin da ukatu talde heterogeneoetan zuten askatasun eta malgutasunik ez dutela izaten Bigarren Hezkuntzan eta batzuentzat zail samarra suertatzen dela beste erara moldatzea. Baina ikasleak helduagoak dira, badakite Bigarren Hezkuntzako eskolen funtzionamendua nolakoa den eta beren bidea bilatzen dute. Talde homogeneoetan ikasitako ikasleek ere izaten dituzte arazoak ikastetxez aldatzerakoan. Izan ere, 12-13 urteko adina guztientzat izaten da “delikatua”.



euskal
heziketarako
aldizkaria


39



Buru
funtzionamenduaren
pedagogia
Armelle Geninet
irakaslearen ikerlanak

Buru funtzionamenduaren pedagogia

Armelle Geninet irakaslearen ikerlanak



Armelle Geninet matematika irakaslea da. Lan horretan daramatza hogeita bost urtetik gora eta berak dioenez berandu samar heldu zitzaion buru funtzionamenduari buruzko ikerketen berri. Hala ere, bere klasetan BURU FUNTZIONAMENDUAREN oinarriak gauzatzen dituenetik, orain bizpahiru urte, aurreko denetan baino gehiago ikasi duela aitortzen du, teknika horietan irakasleen formatzaile delarik.

Bera kezkatzen zuena zen, eta beste asko ere seguruenik bai, gelako bospasei ikasleko talde bat atzean geratzen zela eta ahalegin pedagogiko handienak egin arren, talde hortakoek ezin izaten zutela besteen martxa jarraitu. Onartezina iruditu zitzaion hori eta hortik abiatu zen bere ikerketa pertsonala egitera. Zerk eragiten ote zuen egoera pedagogiko baten aurrean zebait pertsona egokitzea eta beste zebait ez?

Bere ikerketaren hastapenetan, gazteekin edukitako elkarrizketak lagundurik, ikasteko zailtasunak hartu zituen aztergai eta haien xehetasunak ikasi. Lan honek adimenak egiten duen ibileran oinarritutako tresna pedagogikoak sortzen lagundu zion. Bere helburua zen, erabat ezabatzea

ezinezkoa bada ere, eskolako porrota gutxitzea. Porrota ez da halabeharrezkoa. Hura erremediatzeko badira ideia eta baliabide franko, baina hau garrantzitsua izanik, are gehiago da porrota prebenitzea. Horretarako adimenaren funtzionamendua jakitea behar da, eta horretan ari zenean aurkitu zuen Antoine de la Garanderie ikerlaria.

Ahaztu ezineko eskola urteak izan zituen gizon honek, maila anitz erre-pikatu zituen harik eta entzumenaren arazo bat zuela konturatu ziren arte, hau da, gorra zela. Harrez geroztik idatzizko dokumentuak eman zizkioten lan egin zezan. Filosofia eta Biologia ikasketak egin eta bere 79 urterekin ikerlari ezaguna bihurtu da egun.

Urtetan zehar ikasketa arrakastatsuen ezaugarriak aztertu izan ditu,

hau da, ezaguera edo kontzepturen bat arrakastaz jabetzeko egoeran dauden ikasleek erabiltzen dituzten estrategia mentalak. Hemendik sortu ziren **buru funtzionamenduaren** oinarriak.

A. de la Ganderieren lan guztiak galdera eta hipotesi baten gainean eraikitzen dira. Zerk eragin dezake porrota ala lorpena adimena, borondatea eta faktore sozialak normalak direnean? da galdera. Hipotesia, berriz: Adi egotea, pentsatzea, ulertzea, gogoratzea eta irudikatzea funtzionatzeko egitura jakinak dituzten **keinu mentalak** dira.

A. de la Ganderieren ideia hauek oinarritzat harturik egin ditu bere ikerketak Armelle Geninetek. Berak ikusitakoa aditzera emateko asmoz hurbildu zen Seaskak Miarritzen burututako VI. Jardunaldi Pedagogikoetara. Hurrengo lerrook bere azalpenei leku egiteko aprobetxatuko ditugu; berea da hitza.

Armelle Genineten ikerlanak

Has gaitezen A. de la Ganderieren lehen printzipioarekin: **“Ez dago oroitzenik gabeko ikasketarik”**.

Jakina da, guk entzuten edo ikusten dugunez, zeharo pertsonala den tratamendu mentala egiten dugula. Honen frogatzeko adibide hau: Eman dezagun hitz bat esan eta hark guregan eragiten duenaz ohartzeko eskatzen digutela. Suposa dezagun hitz hori “botila” dela... Zer gertatzen ari zai-zue? Norbaitek ikusi al du botila? Betea? Hutsa? Ardo botila, txanpain botila? Inork entzun al du botila barrukoa edalontzira erortzen? Edo burbuiluen soinua? Botila hitza errepikatu al duzue? Botila barruko edariaren gustua sentitu? Usaina hartu?

Ohar gaitezen hitz bakar batek zenbat oroitzen ezberdin eragin ditzakeen. Bada, gauza bera gertatzen da ikasleekin “perimetroa”, “esfera”, “metro karratua”, “adjetiboa”... esatean.

Adi, **pertzepzioa** eta **oroitzapena** ez dira gauza bera. Bereizketa hau errealitate pedagogikoa bezain biologikoa da gainera, frogatu baita oroitza-

pen prozesuan dauden pertsonen egingako elektro-enzefalogrametan burmuinaren uhinen aldakuntza antzematzen dela eta kortexaren aktibitatearen %30-40ko handitzea gertatzen dela. Gainera, oroitzenetara pasatze hau ez da automatikoki egiten!

Botila hitzaren jokora itzuliz, seguru da batzuren batzuek ez duzuela mentalki ezer egin bai harritura zeundetelako edo beste zeozer espero zenutelako. Era berean, porrot handia bizi duten ikasleek ere ez dute ikasgaiari buruzko oroitzenetik izaten eta Garanderieri kasu eginez, oroitzen desegokiekien edo ezarekin ez dago ikasketarik!

Pentsa dezagun zenbaki batean. Egin izan ditudan esperientzietan, ikasle edo heldu guztiak, espontaneoki, zenbaki **oso** batean pentsatu izan dute. “x” ikustean “zenbakia” pentsa dezake ikasle batek eta hortaz zenbaki osoa. “-x” ikustean seguraski zenbaki negatibo batean pentsatuko du. Baina matematikan -x negatiboa bezalaxe izan daiteke positiboa ere. Beraz, oroitzen espontaneo hauek traba izan daitezke, eta badakigu zailtasunak dituen ikaslea oroitzen espontaneo hauen menpe dagoen ikaslea dela. Egiaztapen honetatik ondorio pedagogiko bat ateratzen da: **oroitzapenaren pedagogia** sustatu beharrena.

Irudi mentalak

Bestalde, pertzepzioa ez da gogortzeko nahikoa izaten. Usu uste dugu haur batek testu batean hitz bat 10 aldiz ikusteagatik ortografia zuzenaz idazteko gai izango dela. Ikustea edo 20 aldiz kopiatzea ez da aski izaten, **oroitzea** falta baitzaio oraindik. Eta bestela, gai izango al ginatke alde guztietan milaka aldiz ikusitako Coca-Colaren logoa marrazteko oraintxe bertan? Seguraski ez. Baina logoa erakutsi, buruan irudikatzeke eskatu eta gero marrazten hasiz gero, errazagoa litzateke. Zer gertatzen da? Bada, **irudi mentalak** sortzen direla. Hauek izan ditezke **ikusmenezkoak, entzumenezkoak, ahozkoak edo kinestetikoak**. Denoi sortzen zaizkigu ikusmenezko edo entzumenezko irudi mentalak, bietako bat nagusitzen zai-gularik. Gero hauei berbalizazioa edo kinestesia gehi diezazkiekegu.

Oroitzen sailkapena

A. de la Ganderiek **oroitzen sailkapen** hau egiten du:

- **1. parametroa:** Konkretua denaren oroitzenak (pertsonak, gauzak, keinuak, gertakariak). Adibidez, botila bat ikusi edo entzuten dut.

- **2. parametroa:** Kodeen oroitzenak (hitzak, zenbakiak, formulak,



Armelle GENINET



ikasketa automatikoak). Adibidez, b-o-t-i-l-a hitza ikusi edo esaten diot neure buruari.

- **3. parametroa:** Lotura logikoak (buruketak egiteko estrategiak, analisia, sintesia, indukzioa, dedukzioa). Adibidez, botila forma ezberdinak ikusi eta ekoizpen prozesuaren pauso guztiak kontatzen dizkiot neure buruari.

- **4. parametroa:** Lotura bereziak (aurkikuntza, asmakuntza). Adibidez, itsasoan mezu bat daraman botila baten ipuin bat asmatzen dut.

Nolakoa ote da parametro hauetarikoa bat nagusitzen zaion ikaslearen jarrera?

1. parametroko joera nagusia duen ikasleak kurtsoan zehar anekdotak, irakaslearen jantzien kolorea edo orrazkera, edo aldamenekoaren eztula baino ez du jasoko gogoan. Ingurune-ko afektibitatearen eragin handia izango du. Horrelako oroitzapenak zaildu egiten dute kontzeptu matematikoen ulermena.

2. parametroan kokatzen diren ikasleak beti errezeta eta formula bila arituko dira, gogokoa dute buruz ikastea. Ondo moldatzen dira gauzak "nola egin" erantzun beharreko arloan.

3. parametrokoek lotura logikoak dituzte atsegin eta gauzen zergatiak interesatzen zaizkie. Gustukoagoak dituzte azalpenak aplikapenak baino.

Antolatzaile onak dira eta ezin dute ezer bereganatu lehendabizi ulertu ez badute.

4. parametrokoak dira urrunago joaten direnak. Bere irudimeneko eremuan ibiltzen dira. Ikasle batek laukien azalpenaren ondoren zera esan zuen: "Ziur al zaude ez dagoela oraindik inork asmatu ez duen laukirik eta nik asma nezakeenik?".

Ikasleak joera nagusiko parametroaren menpe daude, harrapaturik, harik eta beren buruan gertatzen dena azaldu eta ohitura berriak hartzen trebatuko dion irakaslearekin topo egin arte. Baina ez dezagun uste ikasleak direla bere parametro nagusietan preso dauden bakarrak, helduetariko inork ere ez ditu lau parametroak era berean garatu. Oroitzapen ohitura horiek egiten gaituzte heldu ezberdinak, eta era berean irakasle ezberdinak ere bai. A. de la Garanderiek esan zuen bezala: ongi antolatutako pedagogia norberaren baitan hasten da. Ezin da ulertu nola oraindik irakasle gazteen formakuntzan ez duten beren ohitura mental hauek ezagutzeko aukera izaten.

Buruko oroitzapenen joerak

Pertsonen oroitzapen mentaletan badaude **konstanteak** deitzen diren erakusleak eta hauek, aldi berean, bi motakoak izan daitezke. Batzuk globalak, sintetikoak eta espazialak dira, espazioaren esparru mentalean eraiki-

tzen direnak. Beste batzuk, berriz, linealak, analitikoak eta tenporalak, denboraren esparru mentalean eraikitzen direnak. Adibidez, "zaldia lauhazkan" esaten badut, zer gertatzen da zuen buruetan? Batzuek filme bat egingo dute, zaldiaren mugimenduak entzun edo sentitu mugimenduaren jarraikortasunei lehentasuna emanez. Aitzitik, beste batzuek, postura dinamiko batean dagoen zaldi baten irudia izango dute, irudi geldi horrek gordetzen baitu inplizituki aurretik gertatu dena eta ondoren gertatuko dena. Lehenek denborari ematen diote lehentasuna eta bigarrenek espazioari.

Gaur egun oraindik euskarri pedagogikoak nagusiki **lineal** itxurakoak dira, matematikan batez ere; algebra, geometriako teorema... Ikasteko zailtasunak dituzten haur gehienek azalpen globalak beharko zituzketen, sintesiarako aukera, alegia. Premiazkoa da irakasleek erabiltzen duten ikasmaterialak egitura epistemologikoak dituztela konturatzea, beren azalpenetan linealtasuna eta globaltasuna txandatuz erabil ditzaten.

Biderketa taulak

Azter dezagun biderketa taulekin gertatzen dena. Ohitura denez irakasleak taula osorik, ahoz eta buruz esateko eskatzen dio ikasleari. Lan hau logikoa eta arrazionala da eta maiz burmuineko ezkerreko hemisferioarekin lotu izan da. Horrela, taulak ikastea soilik hasten dira irakasleak horrelako galderak egiten: $6 \times 7 = ?$

Lehenbiziko eskakizuna eta geroko galdera ondoko bi estrategia hauen kontrako zentzuan doaz. Bata denborazko ikasketaren kontra, eta bestea taula osoa eta ordenean buruz ikastearen kontra, gero galderari erantzuteko elementuak bereizi eta ordena hartatik atera beharko baititu.

Horrelako ariketa batean suposatuta ohi da, oker nire ustez, buruz ikastea eta ulertzea batera doazela eta ikasleek errazago ikasiko dituztela taulen emaitzak hauek nola lortzen diren ulertzen dutenean. Beharrezkoa da osotasuna-

ren jabe izatea haren elementuak ulertzeko, diote, eta taula osoa buruz ikasiz gero, berehala jakingo du $6 \times 7 = 42$ dela.

Azter ditzagun buruz jakitearen estrategia mentalak. Informazio kopuru handi baten memorizazio lan batean, ekintza mentala informazio berrien kopurua murrizteko egitasmoarekin egituratzen da, lehendik buruan gordeta zeuden informazioekin lotura minimoak sortuz.

Ikus dezagun taula bat (Ikus 1. taula).

Taula hau hiru espazio bertikaletan banatzen dute haurrek: elementu iraunkorrak, lehen hamar zenbaki osoen zerrenda eta elementu aldakorrak.

Ikasleek biderketa taula esaten ari direnean ez diete zenbaki guztiei garrantzi bera ematen. Eskubiko zutabeak dira inportanteenak, erdikoak askoz gutxiago eta ezkerrekoak apenas.

Ikasketa bertikal horretan hasierako 30 informazioak hirutan bilaka daitezke eta ikasleen buruan horrela izaten da gehienetan.

**6 lehen 10 zenbaki +6
osoen zerrenda**

$6 \times 7 = ?$ galderaren erantzuna bilatzeko aktibitate mental hau aldatu beharrean dago ikaslea orain.

.....

 6.....x.....5.....=.....30

 6.....x.....7.....=.....42

Hemen sortzen dira hamar espazio horizontal (batzuk besteengandik independenteak), hamar azpi multzo. Goragokoarekin alderatuta zenbaki denak dira inportanteak, hirurak dute premia bera eta gogoan gordetzeko garrantzi berbera dute. Ikasketa horizontal honetan 30 informazio horiek

hiruko taldeetan antolatzen dira eta hiru zenbakidun multzo horizontal bakoitza beste multzoekiko independentea da.

Zer zailtasun sortzen dira orain? Entzumenezko irudi mentalak nagusitzen zaizkien ikasleek ezin dituzte biderketa taulak buruz ikasi, gogoan jaso behar duten informazio kopurua izugarria baita (30 taula bakoitzeko). Beraz, linealki eraikitzen segitzen dute, gehiketen bidez jardunez. Informazio horiek guztiak informazio bakar batera murrizten dituzte. "6 gehitzen dut" eta batzuetan behatzekin ere kontatzen segitzen dute. $6 \times 7 = ?$ galdetutakoan taularen hasieratik hasten dira $6 \times 1, 6 \times 2, \dots$, batez ere 3. parametrokoak, lotura logikoak bilatzen dituztenak.

Ikusmenezko irudi mentalak nagusitzen zaizkien ikasle askok ez dute ikusmenezko oroitzapenez baliatzea pentsatu ere egiten eta entzumenezkoak erabiltzen setatzen dira. Honek porrotean bukatzen du, noski.

Taula osoa buruz esatetik 6×7 ren emaitza berehala aurkitzera pasatzeak

estrategia aldaketa itzela eskatzen du. Zentzu bertikaleko eraikuntza baztertu behar dute, ahaztu buruz ikastearen lotura lineala, 6a eta 7a aurrenetik gogoan zuten lekura eramanez, hasierako multzoen loturak hautsi eta lotura bereziak (denborazkoak nahiz espazialak) sortu azpi multzo autonomoak osatu ahal izateko eta lotuak ez ziren hiru zenbakiak elkartu eta horizontalean globalizatu ahal izateko. Estrategia aldaketa hau zailtasun gaindiezina suertatzen da ikasle askorentzat, taula buruz esatearekin osoko multzo bakarra eraiki baitute, eta orain, hura eraitsi beharrean baitaude beste era batera berreraikitzeke. Honek goitik behera zalantzan jartzen du aukera pedagogiko honen egokitasuna.

Buru egitasmoa

Zer eragiten du adi egoteak, oroitzeak, gogoeta egiteak, ulertzeak edo imajinatzeak? Esate baterako, artikulua hau irakurtzerakoan gutariko bakoitzak badu bere oroitzapenak zuzentzen dituen barruko egitasmo mental bat. Egitasmo hau gure oroitzapen guztiak

1. taula

6	1	6
6	2	12
6	3	18
6	4	24
6	5	30
6	6	36
6	7	42
6	8	48
6	9	54
6	10	60
elementu iraunkorra	Lehen 10 zenbaki osoen zerrenda	elementu aldakorrak

gidatzen dituen hari nagusia da. Egitasmo mental inkontziente horrek irakurritakoaren artean sailkapen bat egitera eramaten gaitu eta galdetuak izango bagina erantzun ezberdinak emango genituzke, seguruenik. Hauek gu kontziente izan gabe guregan sartzen diren egitasmoak dira.

Jardun mental bakoitzari egitasmo zehatz bat dagokio. Gutariko bakoitzak egitasmo egitura nagusiak gartuak izaten ditu eta hauek arlo batzuetan lorpena eta besteetan porrota izatea baldintzatzen dute.

Ulermena adibidetzat hartuz gero, ikasle batzuentzat ulertzea aplikatzen jakitea da eta beste batzuentzat azaltzen jakitea. Arrakastadun ikaslea biak egiten dakiena da, bat nagusitzen bada ere. Epe luzerako lorpenak nahi badiugu era horretan trebatzen lagundu beharko lieketen irakasleak behar lituzkete ondoan.

Ulertu ala ikasi

Oso zabaldua dago beste era honetako pentsakera: "Ulertu dute, beraz

badakite". Hau ez da egia. Ulertu dute, baina ez dakite. Gogoan jasotze-ari garrantzia kendu zaio ulermena hobestu izan delako.

ulertu eta **ikasi** bi keinu mental ezberdin dira, osagarriak eta lagungarriak, baina ezberdinak. Ulertzea hemen eta orain izaten da, ikasteak, ostera, beste nonbait eta beranduago ere iraun behar du.

Kudeaketa mentalak tresna bat proposatzen du: **elkarriketa pedagogikoa**, ikasle eta irakasleentzat ere lagungarri izango den komunikazio tresna eta zalantzan jartzearen teknika bat. Ikasleari bere oroitzapenez eta bere baitan dituen egitasmoez kontziente izaten lagunduko dio eta irakasleari ikasleen zailtasunen oinarria ahal bezain laster antzemateko arrastok agerian jartzen dizkio. Ikaslearen buruek nola funtzionatzen duten aztertzeak egoera pedagogikoak irakurtzeko taula berri bat ematen die irakasle guztiei eta berrikuntza pedagogikoei ate berriak zabaldu.

Buru funtzionamendua aztergai UEUn

Armelle Geninet buru funtzionamenduan formatzailea da egun eta bere ideiak Euskal Herrian ere zabaltzen ari dira. Mikel Erramouspe Baigorriko Bil Etxea Kolegioko zuzendaria eta Historia-Geografia irakaslea buru funtzionamenduaren inguruko ideia hauek aplikatzen dabil. UEUko uda ikastaroetan emango du horren berri, Miarritzen, uztailaren 8an eta 9an. Lehenengo egunean hiru gai aurkeztuko ditu: "Buru funtzionamenduaren edo gogo-erabilketaren aurkezpena", "Gogoratzea" eta "Ohartzea eta gogoan hartzea edo memorizatzea". Bigarren eta azken egunean beste hiru gai landuko ditu: "Gogoetatzea eta ulermena", "Irudimena" eta "Gogo-erabilketa klasean edo taldean, eta gogo-erabilketa bakarka".

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoaz

Izena.....1. Deitura.....
 2. DeituraTel:.....
 HelbideaPosta Kodea.....
 Herria.....Herrialdea.....
 Ikastetxea.....Herria.....
 IFZ

Aurrezki Kutxa edo Bankua

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne)

Hego Euskal Herria
4.500 pezeta
Ipar Euskal Herria
180 libera

hik hasi

Euskal heziketarako aldizkaria
Industrialdea, 2. Pabilioia
20.160
LASARTE-ORIA.
GIPUZKOA
Tel: 943/ 37 15 45
Faxa: 943/ 36 10 48

Euskal Ikasleen III. Biltzar Nazionala

Maiatzaren hasieran elkartu ziren Euskal Herriko ehundaka ikasle Agurainen III. Biltzar Nazionala burutzeko. Zazpi gunetan egin zituzten bilera eta hausnarketan ondoren, hainbat ondorio atera zituzten. Nagusia eta arlo guztietan azpimarratu dena euskalduntzearen premia izan da. Hori izanen da hemendik aurrerako lanaren zutabea.

Arlo bakoitzean bere euskalduntzearen egoeraz mintzatu ziren eta hauek dira atera ziren planteamenduak.

1. Unibertsitatea euskalduntzeko gunea

Egun inposatua dagoen unibertsitate markoak euskaldunon hizkuntz eskubideak ukatzen dituela argi ikusi dute. Eta horren aurrean aurten piztutako ekimenetan jauzi kualitatibo bat eman behar dutela ere bai. Jauzi horrek bi norabideetan joan behar duela adierazi dute:

1) Unibertsitatea euskalduntzea ikasle euskaldunon esku, eta horretarako gure autoantolamendua indartu eta fakultatez fakultate, klasez klase txinaurri lana egin behar dugu. Gakoa borroka lokaletan, helburu zehatz eta lorgarrien inguruan egituratzen diren horietan dago.

2) Borroka lokal hauek guztiak ardatz berdinen ildotan kokatu behar dira: unibertsitatea euskalduntzeko ardatza, alegia. Unibertsitatea euskalduntzeko erronkak nazionala izan behar du.

Era berean, zenbait lan-molde ezberdin planteatzen hasi behar dutela ondorioztatu dute: erdarazko klaseetan ez matrikulatzea edo azterketak ez egitea, ekintza ikusgarriak burutzea...

2. Erdal ereduak

A eta G ereduak egungo irakaskuntza eredu kolonialaren aurpegiak bortitzena direla diote. "Gaztelera eta frantsesa

oinarri duten eredu hauek euskal ikasleriaren euskalduntzea ukatzen dute, batez ere hizkuntzaren aldetik baina baita edukien aldetik ere".

Errealitate hau pairatzen duten ikasleek bi helbururekin antolatua behar dutela ikusi dute:

1) Urte luzez egindako sarraskia eta desideologizazio lana salatu egin behar dutela.

2) Erdal ereduak suposatzen duten odolustea ahal den neurrian ekidin behar dutela, A eta G ereduak barnetik gaindituz euskalduntzearen bide iraunkor baten ildotan.

3. Erdal edukiak

"Hizkuntzarekin loturik funtsezko auzi bat hartu behar dugu kontuan: edukien (edo curriculumaren) auzia, hain zuzen ere. Izan ere, egunero espainiar eta frantziar ikuspegi bat inposatzen digute, inplizituki zein esplizituki, klaseen eta testuliburuaren bitartez". Honen aurrean zenbait estrategia garatu behar direla erabaki dute, identifikazio eta salaketa lanetik hasi eta desobediencia jarreretaraino. Jorratu beharreko hiru ildo aipatu dituzte bereziki:

1.- Testuliburu espainiar zein frantziarrak ikastetxeetatik kanporatzea.

2.- Euskal curriculumak garatzea egunero-egunero ikastetxeetan.

3.- Hainbat irakasleren jarrera aldaraztea euskal edukiekiko konpromezua bilatuz.

4. Lanbide Heziketa

Egun Euskal Herrian Lanbide Heziketan eta Heziketa Ziklo berrietan dagoen euskarazko eskaintza izugarri murriztu da (%7-8 ingurukoa), milaka ikasle euskaldunen eskubideak zanpatzen direlarik. "Egoera honen aurrean asanblada ezberdinen arteko sarea egituratzen joan behar dugu, eta hauen inguruan beste ikasleak, irakaskuntzako beste sektoreak eta gizartea bera mugiarazi behar ditugu".

5. Ertainetako euskara taldeak

D ereduko ikastetxeetako ikasleek

askotan euskararen aldeko sentsibiltate berezia daukate. Sentsibiltate hau hainbat modutan gauzatzen da: euskara taldeetan edo bestelako ekimenetan parte hartuz, adibidez. Beharrezkoa ikusten dute, zentzu honetan, euskararen aldeko sentsibiltate hori euskalduntzearen apustuaren inguruan gauzatzea. Horretarako ere, lan ildo zehatzak finkatu dituzte:

1.- Ikastetxean euskaraz bizitzea errealitate bihurtzeko garatu beharrekoak.

2.- Eskualdean dauden beste errealitateen inguruan (Lanbide Heziketa, erdal ereduak) garatu beharrekoak.

6. Ikasle aldizkariak

Euskalduntzearen erronkan funtsezko garrantzia dauka komunikazioak: esperientziak elkartrukatzea, apustu berdinen parte sentitzea, egoera ezberdinak ezagutzea... Ildo honetan ikasle aldizkariak paper garrantzitsua jokatu behar dutela badakite: komunikaziorako tresna eraginkor bezala, zirikatzailerik bezala, eztabaidak planteatzeko eragile bezala...

7. Ikastetxe euskaldunak

Talde honetan bildutakoek zera ikusi dute: hainbaten ahaleginari esker badaudela egun Euskal Herrian baldintza txukun batzuk dituzten ikastetxeak; euskaldunak hizkuntzaz zein edukiz eta sektore ezberdinen arteko gatazkarik gabekoak. "Ikastetxe hauetan euskal eskolaren ereduak sakondu egin behar dugu hiru ildotan, beste guztiontzat aitzindari izanez":

1.- Euskara komunikaziorako hizkuntza nagusia izatea, horretarako kanpaina iraunkorrek bultzatuz.

2.- Euskal curriculumean sakontzea, bakoitza bere ikastetxean baina aldi berean ikastetxe hauen guztien arteko elkarlana bultzatuz.

3.- Eredu demokratiko eta parte hartzaile batean sakontzea. Honetarako guztirako ikastetxe hauen arteko komunikazio iraunkorra beharrezkoa da, planteatutako ardatz hauek praktikara eramateko orduan.

Sarean Elkartearen ondorioak

Sarean elkarteak VI. Topaketak burutu zituen Bilbon. Euskal Autonomia Erkidegoko Haur eta Lehen Hezkuntzako 75 ikastetxe publikotako irakasle eta ordezkariak bildu ziren zenbait gaien inguruko hausnarketa egiteko asmoz.

Gai ezberdinak jarri zituzten mahai gainean: eleaniztasun goiztiarra, euskalduntze prozesua eta hizkuntz normalkuntzarako proiektuak, gizarte edo kultura ikuspegitik besteak baino egoera txarragoan dauden ikasleen eskolaratzea, Interneten aukerak... Alor hauetako erronkei aurre egiteko giza eta ekonomi baliabideak behar dituztela agerian utzi dute jardunaldi hauetan.

Eleaniztasun goiztiarraren kasuan, hainbat proiektu martxan jarriak izan dira ikastetxeetan: apendizaiia naturala, haurren imitatze eta esperimintatzeko joera, ahoskeran lortzen diren emaitza hobek... Egindako esperientzia aitzindarien berri zehatza jakinarazteko eta haiek garatzeko beharrezko baliabideez hornitzeko beharra ikusi dute.

Hizkuntz normalkuntzaren alorrean argi ikusi dute eskola bizitza osoa euskaraz egin ahal izateko baliabideak bermatzea beharrezkoa dela. Horrekin batera, hizkuntz normalkuntza proiektuan sartu gabe dauden ikastetxeei sartzeko aukera ematea eskatu diote Hezkuntza Sailari.

Ikastetxe publikoetako ordezkari hauen beste kezka bat gizarte edo kultura ezberdineko ikasleen eskolaratze arazoak dira. Haur atzerritar eta ijitoen eskolaratzeaz hitz egin zuten, batez ere. Lehenengoen kasuan, nahiz eta

hasieran arazo handirik ez sortu, adinak gora egin ahala bazterketak eta hizkuntz arazoak sortzen direla ikusten dute. Horrelako egoerei aurre egiteko baliabide urriak daudela azpimarratu dute topaketa hauetan.

Ikasle ijitoen kasuan, hainbat arazo irakaskuntzarekin zerikusirik ez dutenak direla ohartarazi nahi izan dute eta beraz, gizartea eta eskolaren artean konpondu beharrekoak direla. Horrela, udal eta foru administrazioei gizarte laguntza eskatzeaz gain, gai hau landuko duen batzorde misto bat eratzeari proposatu dute.

Laugarren atal bezala Interneten aukerak izan zituzten aztergai. Internetek eskaintzen dituen komunikazio eta informazio baliabideak aprobetxatu behar direla azpimarratu dute. Horretarako irakasleak prestatu eta zentroak beharrezko baliabide informatikoez hornitzeko plana diseinatu eta garatzea proposatu dute.

tx n kur tu

*Ir a n
1.2 zt .*



*K tx
2 zt .*



*l n .
n-a
1 zt .*

Ez n... z n k _____
 U I _____
 st K _____
 H ur _____
 U r r l _____
 T I J z _____
 K ntu K r r n t (z z n k) ____/____/____
 t l z _____

ESK E

M U T U I L	K O N T U	ZEN BAK	S T
		1.2	
n		1	
K tx (n)		2	
Ez... st u k			-3
			S T

U E E E E
 K r r z K N T S E I L U
 M r r n n n K u l t u r a t u
 2 2 2 N I N

K r r z 405 3 51



Osasunaren heziketa

Bilboko Begoñazpi Ikastolaren esperientzia

Izaskun ATXA
Ana M^a GABIKA-ALDEKOA

Osasuna denon ahotan ibiltzen den gaia da, baina ez da hitzez soilik landu eta zaindu behar den gauza. Osasuna prebentzioa da, hots, ez gaixotzeko modurik onena prebenitzea da. Horretan ere ikasi egin behar, ordea. Nola? Bilboko Begoñazpi ikastolan badute Osasunaren Heziketa lantzeko proiektu bat eta hori azalduko digute.

Artikulu bizkaieraz dago, hots, egileek idatzitako moduan. Hori da ikastolan erabiltzen duten hizkuntza nagusia eta errespetatu egin dugu.

Ikastolan osasuna gaia betidanik landu izan dogu eta gaur egun proiektu bat osotua daukagu, praktikan daukagularik. Osasuna lantzeko proiektua da, baina gai honen barruan elementu ezberdinak dagozala kontuan izanik, helburua ez da bakarra. Gure ikasleen osasun heziketa orokorra landu nahi dogu: drogomenpekotasuna, elikagaia, autoestimua, zentzu kritikoa, higiena, ohitura osasuntsuak... Drogomenpekotasunaren prebentzioa lantzeko programa batzu osotuz joan gara urte honee-

tan. Baina elikagaia, higiena, autoestimua eta abar lantzeko ez dago programarik. Hori gure kabuz eta gure eguneroko ekintzen bidez lantzen dogu, eguneroko ekintzak eta ohiturak dira oinarri kasu hauetan. Adibidez, soinketa egin ondoren dutxatu egiten gara, jan baino arinago eskuak garbitzen doguz. Ekintza honeek eurekaz komentatu eta ondorioak ataritzen doguz. Adibidez, soinketaren ondoren dutxatu egin behar dogula ikasi behar dabe, baina jakin behar dabe hori ez dala beste barik egiten den gauza, arrazoi bat dagoala. Horretaz ohartu behar dira eta ohiturak hartu. Kasu honeetan, oinarria ohiturak sortzea eta mantentzea da.

Drogomenpekotasunaren prebentzioa

Aipatu doguzan arloak (higiena, elikagaia, ohitura osasuntsuak...) lantzeko programarik ez dago baina, drogomenpekotasunaren kasuan ez da horrela, Lehen Hezkuntzan, DBHn eta Batxilergoan hori lantzeko proiektuak osotu doguz. Baina zelan hasi ginan guzti hau bideratzen? Nondik sortu da proiektua?

Orain dala hamar urte inguru Etor-kintza taldeagaz batera lan egiten hasi ginan, batez ere Lehen Hezkuntzan. Etor-kintza Elkargoa drogomenpekotasunaren prebentzioa lantzen dauan taldea da eta urte asko daroaz drogaren aurkako planak egiten. Zentroz zentro



gure beharrianei erantzuten ibiltzen dira eta arazoan aurrean euren laguntza luzatzen dabe. Gure zentroa lasaia da alde honetatik eta ez dogu arazo haundirik izan.

“Nire lagunekin baratzean” programa 6-8 urtekoentzat

1993-94. ikasturtean Bilboko udalak eta Etorkintzak gidatuta, “Nire lagunekin baratzean” proiektua martxan jartzeko gure ikastolara jo enen, gai hori lantzen urte batzuk erosten genduzalako. Proiektuaren zentro pilotoa izan ginan eta gaur egun zentro askotan lantzen da.

Proiektu honeguz Lehen Hezkuntzan osasuna eta drogaren aurkako gaiak beste era batera lantzen jarraitu genduan. Drogomenpekotasunaren prebentzioa eta heziketa dira programa honen muinean dagozan gaiak, eta ipuinak dira irakasteko eta bideratzeko erabiltzen doguzan tresnak. 6 urtetik 8 urtera bitarteko umeak berehala sartzen

dira ipuinetan eta oso egokiak dira. Ipuin honeetako pertsonaiak barazkiak dira: Patata, Idar, Kalabaza, Pepino, Azalore Jauna, Tomatea... Euren arteko bizimodua eta daukiezan arazoak kontatzen dira ipuinen bidez. Adibidez, Kalabaza lodiegia dala eta ez dala onartua. Gela guztietan dago Kalabaza bezalako arazoa dauan norbait. Patata, esaterako, pertsonaia gizajoa da eta gela guztietan dago horrelako norbait. Orduan, umeek guztiz isladatuta ikusten dabe euren burua pertsonai honeetan. Pertsonaia guztiek daukie umeek berehala antemoten daben zerbait. Honeen bitartez umeen autoestimua, ezetz esaten ikastea eta abar lantzen doguz.

Ipuin honetan droga hitza ez da inoiz agertzen, nahiz eta beste modu batera hor isladatuta egon. Adibidez, Txanpinoia pertsonai gaiztoa da eta aurre egiten ez dautson beste pertsonaia batek edabe magikoa edaten dau eta edari hori droga da. Gure ikasleek, ordea, oraindik ez dabe edaria drogagaz erlazionatzen, baina ikasi egiten dabe edari magikoari ezetz esaten. Gure arazoak konpontzeko ez dago edari magikorik, gu geu baino.

Ipuin honeek irakurteaz gain beste ekintzak ere egin daitezke: narrazio edo ipuina asmatu pertsonai bategaz, marrazkiak egin...

Hau guzti hau lantzeko ez daukagu ordu finkorik Lehen Hezkuntzan, ez daukagu tutoritza ordurik. Orduan edozein momentu egokia da gai hau lantzen aprobeatzeko. Horrela, egun batean euskera lantzeko ipuin bat erabiltzen dogu, ahozko hizkuntza lantzeko ere balio daualarik.

Hona hemen “Nire lagunekin baratzean” programako ipuin bat: Patatari errua bota deutse

Eguna eguzkitsua eta argitsua da. Idar eta Indaba, Idarren baloi berriagaz jolasten dabilz. Gustora dagoz Pepino eta Patata heldu arte.

- Bai baloi polita! -esan dau Pepinok-Gustatzen jat, bai!

- Nirea da -esan dau Idarrek.

Pepinok baloia kendu deutso.

- Begira! -esan dau Pepinok. Ostikada bat emon eta baloia urrun-urrun bialdu dau.

Idar negarrez hasi da eta Patatak pena hartu dau.

- Hori ez dago batere ondo -pentsatu dau- Idarren baloiaren bila noa.

Patata arineketan joan da baloiaren atzetik. Idar, bitartean, negar eta negar dabil. Halako batean Azalore Jauna agertu da. Pepinok ikusi eta alde egin dau.

- Tira, tira, zer dira zarata honek? - itaundu dau Azalore Jaunak.

Idarrek ezin izan deutso erantzun, negar-zotinka dagoalako. Baina eskua luzatu dau Patata baloia hartzen dagoan aldera.

- Nahikoa da! -oihukatu dau Azalore Jaunak -Ekarri baloia oraintxe bertan!

Patata korrika itzuli da eta baloia emon deutso Azalore Jaunari, honek eskerrak emango deutsozalakoan. Baina horren ordez, Azalore Jaunak sekulako errieta egin deutso Idarren baloia hartzeagatik.


- Nik lagundu besterik ez neban nahi -esan deutso Patatak.

Berak ez deutso kendu baloia Idarri, baina Azalore Jaunak ez deutso sinistu. Errietan egin eta Idar bakean uzteko agindu deutso.

Patata gixajoa! Ez dau gauza txarrik egin, eta hala eta guztiz ere errua bota deutse (Ikus marrazkiak).

Osasunkume programa 9-11 urtekoentzat

“Nire lagunekin baratzean” programa Lehen Hezkuntzako lehen zikloan eta bigarren zikloko lehen mailetan lantzen dogu. Lehen Hezkuntzako gaintzeko mailetan, hau da, 4., 5. eta 6. mailako ikasleekin beste programa bat osotzen dogu, “Osasunkume” izenekoa. Antzeko programa da, ohitura osasuntsuak, autoestimua, lagun arteko erlazioa eta abar lantzeko, baina beste era batera. Hau da, ez ipuinen bidez, albumen bidez baino. Albumak kromoak daukaz eta honetariko bakoitzak istorio bat. Kromoak komentatzen dira



eta batez ere ahoz, mintzatuz, lantzen da gaia. Umeekaz agertzen diran gauzak komentatzen dira: zer dagoan ondo, zer dagoan txarto, zer gertatuko litzatekeen... Ikasle bakoitzak bere albuma eta kromoak daukaz eta ikasturte amaieran etxera eroaten dute.

Kromo horreetan agertzen diran irudiak eta ekintzak drogomenpekotasunaren eta osasunaren gaiari lotuta dagoz. Adibidez, kromo batean tabakoari buruzko egoera planteatzen da., beste batean lagun batzuk edan egiten dabe eta mozortu egiten dira. Programa honetan tabakoa, droga, alkohola agertzen eta aitatzen dira. Baina ez bakarrik egoera honek, baita lagunen arteko hartuemonak, ezetz esaten ikasi...

Lehen Hezkuntzako lehen mailetan bezalaxe, maila honeetan ere ez dago gai hau lantzeko ordu finkorik. Egokia ikusten dogun edozein une aprobetxatzen dogu edo arazoren bat agertzen dan uea.

Proiektua sendotu eta osatu da

Urte honeetan lan egin ostean, gure lana lotzeko eta osotasuna emoteko beharrean aurkitu ginan. Horrela, orain dala hiru urte, apurka-apurka joatearren, Lehen Zikloaren proiektua osatu genduan. Iaz Bigarren Ziklokoa egin genuan eta aurten, etapa osoari osotasuna emoteko, Hirugarren Zikloko proiektua aurrera eroatea erabaki dogu.

Proiektu hau gure ICPren (Ikastetxeko Curriculum Proiektua) barruan dagoanez, urtero lantzen dogun arloa da. Urtetik urtera gure prestakuntza ere hobetuz doa eta esperientziak ere laguntzen deusku.

Emaitzei dagokienez, epe ertain batera jasotzen diranez, oraindik ondorioz ez dogu ikusi. Baina ikasleak teoria asko jaso dabe, nahiko informatuta dagoz eta erantzuna ikusiko da!

DBH eta Batxilergoko proiektua

Lehen Hezkuntzan ez ezik, DBH eta Batxilergoko ikasleei "drogomenkotasunaren prebentzioa" ikastaroa eskein-



tzen hasi ginan orain dala hiru ikasturte. Irakasleok egindako hausnarketa batek bultzatu ginduzan ikastaro hau antolatzen. Gure ustez, gaur egungo nerabeek eta gazteek inguruan daukiezan estimuloek sarritan "gonbidatu" egiten dabez mundu horreetako atek zabaltzera. Bestetik, adin honetan talde presioa gogorra izaten da eta ezetz esatea gatza egiten jake. Argi ikusten genduan sendien betebeharra oinarritzeko zala eta dala, baina ikastolak heziketa ikuspuntutik zerbait eskeini behar eballa ere bai.

Hori argi eukita, Lagungo taldera zuzendu ginan proiektua antolatzeko. Eleizbarrutiko Familia Orientazio Taldea da Lagungo. Honen laguntzaz, beraz, proiektua burutu genduan. Labur esanda, zutabe bitan oinarritzen da proiektua: informazioa eta heziketa. Lan progresiboa da ikasleen adina eta heldutasuna kontuan harturik. DBHraiko eta Batxilergorako proiektua da eta etapa bakoitzean lantzen diran edukiak honexek dira:

DBHn:

- Gaiari lotutako hiztegia.
- Drogen sailkapena eta bakoitzaren eragina giza-gorputzean.
- Kontsumoa bultzatzen daben egoe-rak.
- Epidemiologia.
- Droga desbardinaren azterketa:
 - * Tabakoa.
 - * Alkohola.
 - * Opiazeoak.
 - * Estimulanteak.
 - * Psikodisleptikoak.

Batxilergoan:

- Publizitatea eta gai honetan daukan eragina aztertu.
- Taldearen presioa eta trebetasun sozialak.
- Autoestimua.
- Denbora libre, prebentziorako bidea.

Gai hauek gelaka lantzen dira, tutoritza orduetan eta maila bereko taldeak elkartu barik. Era honetan ikasleen parte hartzea erretzen da, ikaskideen arteko ezagutza eta hartuemonak sendoagoak diralako. Hau, gure ustez oso garrantzitsua da, erabiltzen dan metodologia parte hartzean oinarrituta dago eta.

Ikasleek talde txikitik edo handitan egiten dabe lan, dakienetik hasi eta ez dakienerantz abiatuz. Eztabaidatu, galdetu, zalantzak argitu... egiten dira saioa zuzentzen dauan orientatzailearen laguntzaz. Orientatzaile hau kanpotik etortzen den pertsona bat izaten da. Talde bakoitzean 12 orduko programa garatzen da.

Sendiak gai honetan daukan zeregina gutziz garrantzitsua eta ordezkazina da. Hori dala eta, ikasleekin izandako saio guztien amaieran batzar bat egiten da gurasoekin helburu bigaz:

- 1- Euren seme-alabek landu dutena ezagutu.
- 2- Orientazioak hartzeko aukera euki euren seme-alabak gai honetan hezitu daiezan.

Amaitzeko, esan daigun ikastolak positibotzat jotzen dauala programa hau, ikasleek "EZETZ" esateko errekurtsoak eskuratzen dabezalako.

Bianako Erentzun Ikastola Proiektuz eta ilusioz betetako eraikina

*“Lingua vasconum,
lingua navarrorum,
ze arraroa
euskararik gabe,
Nafarroa!”.*

Lelo hau guztiok gogoratuko dugu seguruenik, eta Nafarroa Oinezko oroitzapenak ekarriko dizkigu. Baina non ospatu zen Nafarroa Oinez hura? Euskal Herriko hegoaldeko mugako herri batean, Bianan. Erentzun ikastolak antolatu zuen jai hura 1992. urtean. Zazpi urte beranduago, bertara hurbildu gara eraikuntza berriaren barruan egosten dena ikustera.

Biana 3.600 biztanle dituen herria da, Lizarratik 40 kilometro ingurura dago, Oiondik 8 kilometrora eta Logroñotik 9 kilometrora. Gaur egun bi eskola daude herrian: publikoa eta ikastola.

Erentzun ikastola orain dela 20 urte inguru sortu zen gurasoek bultzata. Irakasle bakar batekin eta 20-30 haurrekin hasi zen funtzionatzen euskara hutsezko eskola hura. Udalak utzitako lokal batzuk osatu zuten lehendabiziko egoitza. Bi urteren buruan beste irakasle bat etorri zen, Irune Martinez de Goñi arellanoarra. “Mertxe, hasieratik zegoen irakaslea, eta ni bi gelarekin egon ginen hurrengo sei urtetan. Lekuari dagokionez, aldaketa ugari jasan genituen. Udalak hasieran emandako lokaletik etxabe batzuetara pasa ginen.

Lokal txarrak eta bitartekorik gabeak ziren”. Handik, gurasoek erositako etxabe hobe batzuetara pasa ziren, baina hura txiki geratu zitzairen eta “txerri-toki” batera igaro behar izan zuten.

Hasierako urte haietan denetarik entzun eta ikusi behar izan zutela dio Irunek. “Batzuk pozik zeuden ikastolaren sorrerarekin, beste batzuk ez, eta batzuk Bianan ikastola zegoenik ere ez zekiten. Kontrako jendea ere bazegoen, bai ikastolaren aurkakoa eta bai gausekolaren aurkakoa. Baina denborarekin gauzak aldatzen joan dira eta orain onartzen gaituzte”.

Onarpen hori, ordea, egin duten lanaren ondorioz etorri da, ez besterik gabe, huts-hutsean. Guraso eta irakasleen lan eta esfortzuaren ondorioz, Haur Hezkuntza ez ezik, Lehen Hezkuntza ere eskaintzen hasi ziren. Eta 1992. urtean ospatu zen Nafarroa Oinezaren ondoren eraikuntza berria egiteko aukera izan zuten. Fultxo Crespo irakasle eta zuzendariaren hitzetan,

“Nafarroa Oinez inflexio puntua izan zen guretzat, gehienbat azpiegitura aldetik. Horrekin lortu genuen erai-kuntza, nahiz eta legalizazioa oraindik eskuratzeko izan”. Azken auzi honi dagokionez, Bianako ikastolako ikasle-en eskolaritate liburuak Lizarrako ikastolan daude.

Gaur egun 90 ikasle daude Bianako ikastolan, 2 urtetik Lehen Hezkuntzako 6. mailaraino. Irakasleak, berriz, zortzi dira momentu honetan.

Haur taldeak txikiak dira, adin ezberdinetakoak elkarrekin egoten direlarik, baina hori positibotzat jotzen dute ikastolako irakasle eta zuzendari diren Fultxo Crespo eta Maite Oterok. “Ez dugu uste gela bateratuak izatea arazo denik. Lan gehiago eskatzen du, baina gelan dagoen aniztasuna bateratzen eta metodologia aldetik egoera horri aterabideak bilatzen saiatzen gara. Oso talde txikiak ditugu, baina horrek abantaila handia suposatzen du ongi ezagutzen dugulako elkar eta giro oso ona daukagulako”.





Fultxo Crespo

Gela txikiak izatearen abantailez gain, ikastola txikia izateak ere badi-tuela diote. “Irakasleren batek proposa-men bat baldin badu, adibidez antzerki bat egitea, eta horrek ikastolako dina-mika hautsi egiten badu, ez dago inolako arazorik behar diren aldaketak egiteko. Beste batek inkesta bat egin nahi badu, lasai-lasai egin dezake. Ez dago inolako burokraziarik jarraitu beharrik. Ikastetxe handietan, berriz, dena ongi koordinatu behar da eta askotan horretan galtzen da intentsitate osoa”.

Kalitatezko hezkuntza

Ikastolak euskara hutsean ikasteko aukera eskaintzen die bianarrei, baina zer gehiago? Berehala erantzuten dio galdera honi Fultxo Crespo irakasle eta zuzendariak. “Euskara eta kalitatezko hezkuntza eskaintzen du ikastolak. Jen-deak ez du ikastola euskaragatik soilik aukeratzen. Gure apustua ez da euskara soilik. Euskara gure baitan dago, baina gure apustua kalitatezko hezkuntzaren aldekoa izan da. Horren baitan euskara nahitaez sartzen da, baina ez hori soilik, baita informatika, ingelesa, irakurketa, estraeskolarrak, ikus-entzunezkoak eta abar ere”.

Hauetako arlo bakoitzean zer eskain-tzen duten jakiteko une aproposa dugu eta hasteko, informatikaz galdetu diegu. “Duela lau urte hasi ginen informatika proiektu batekin Haur eta Lehen Hez-kuntzan”. Proiektu hau Nafarroako ikas-toletako lehenengoa izan zen eta Bianako esperientziaren ondoren gainontzekoetan ere ezarri da. Erentzun eta Nafarroako beste ikastoletan erabiltzen ari diren proiektuak bi dira: “Sagu: Informatika Haur Hezkuntzan” eta “Azti: Informati-karen aplikapena Lehen Hezkuntzan”.

Erentzunen informatika modu serio-an lantzea erabaki zuten. “Izan ere, ordura arte informatika arloko espe-rientziak isolatuak ziren. Interesa zuten irakasleak jo eta ke ibiltzen ziren, eta interesik ez zutenak ordenagailurik ukitu ere ez zuten egiten. Eta bitartean haurrak irakaslearen arabera”. Horrega-tik, planteamendua guztiz aldatu zuten eta programa orokorra osatu irakasle eta ikasle guztientzat.

Haur Hezkuntzako programa Sagu da. Informatika, txoko bat balitz bezala planteatzen da. Beraz, gela hainbat txo-kotan banaturik dagoelarik, informati-ka beste txoko bat gehiago da. “Txoko horretan ordenagailua dago. Programa ezberdin ugari ditu eta irakasleak bada-ki haur bakoitzari zer dagokion. Guk uste baino lehenago ikasten dute orde-nagailua erabiltzen, bai!”.

Baina ordenagailua ez dela mirari bat diote, bideoa eta marrazkia bezala, bes-te errekurtsu bat gehiago dela. “Ez ditu arazo guztiak konpontzen. Berez dau-kan abantaila motibazioarena da. Haur-rak oso motibatuta joaten dira ordena-gailura”.

Baina haurrak ez ezik, gurasoak ere oso motibatuta daudela esan behar da,

“Jendeak ez du ikastola euskaragatik soilik aukeratzen. Gure apustua ez da euskara soilik, baita kalitatezko hezkuntzaren aldekoa ere”



Maite Otero

informatikako programa hauek beraiei esker atera baitira aurrera. Gurasoak izan ziren bultzatzaileak eta ordenagai-luak erosteko milioi bat pezeta jarri zutenak.

Informatikarekin batera ingelesa izan da betidanik egin duten apustua. Beste ikastoletan bezala, 3-4 urterekin hasten dira ingelesa ikasten eta udan ingele-sezko kanpaldiak antolatu izan dituzte. Ikastolan egiten den esfortzuekin eta kanpaldiekin emaitza oso onak jaso dituztela diote Crespok eta Oterok.

Ikus-entzunezkoei ere arreta berezia eskaintzen diete eta hori ikasturtean zehar burutzen dituzten ekintzetan ikus daiteke. Adibidez, irrati txiki bat dute ikastolan. Crespok azaldu digu-nez, “Aste Santuko oporren ondoren muntatzen dugu eta astean behin gela batek irratsaioa prestatzen du, ordu erdikoa edo ordu betekoa. Saio hori zuzenean emititzen da Biana osoan”.

Irratiaz gain, laburmetriak ere egi-ten dituzte bi urtean behin. “Proiektu polita da, gauza bat baino gehiago egi-teko aukera ematen baitizu” dio Cres-pok. “Haurrak izaten dira aktoreak eta guk gaia apropos aukeratzen dugu, horrela zerbait zehatza lantzen dugula-rik. Gurasoek ere parte hartzen dute eta, azken finean, dokumentazio lan bat burutzen dugu, hemendik aurrera era-biltzeko moduko zerbait delarik”. Iaz “Galdutako aztiak” izeneko laburme-traia filmatu zuten. Aztien inguruko bideoa egin zuten eta irakasleek apro-pos aukeratutako gaia izan zen. “Pixka bat ahaztuta zegoen eta haurrek ezagu-tzen ez zuten pertsonaia historiko bat aukeratu genuen, bideoaren bidez hau-rrek pertsonaia hori ezagutu zezaten”.

Irakurketak ere arreta berezia hartu



du aurten. Ikasleen irakurzaletasuna bultzatzeko asmoz Madrilgo Nederland-eko eskolako ereduak jarri dute martxan. Hau da, liburutegia eskolako bihotza edo birika bihurtu dute eta ekintza ugari antolatzen dituzte liburutegiaren inguruan. Esaterako, jolas garaian liburuak har ditzakete, etxera eramanez ditzakete bai beraiek irakurtzeko eta baita gurasoek irakurtzeko ere, lehiaketak antolatzen dituzte (txiste, olerki, kontalari, asmakizun eta abarren lehiaketak) eta kanpoko kortxoan, erositako liburu berriak eta hilabetez hila-bete gehien irakurri diren liburuak zein izan diren jartzen da, horren berri ere izan dezaten hurrek. “Liburu berriak erosi ondoren gelaz gela aurkezten ditugu eta hainbat gauza komentatzen dira: zein den idazlea, idazle horren beste libururik irakurri duten, gustatu zaien ala ez...” dio Oterok. “Hasieran hurrek ez zutela irakurtzen, irakurtzea ez zitzaizela gustatzen eta horrelakoak entzuten genituen. Baina kanpaina egin ondoren, erantzuten dutela ikusi da. Arreta berezia ematen baldin badiozu zerbaiti, azkenean erantzuna egoten da”.

Ekintza hauek guztiak kalitatezko hezkuntza eskaintzeko helburuarekin burutzen dituzte, eta nola ez, guztiaren jarraipena egiten dute ikasle bakoitzarekin. “Klaseak 4:30ean bukatzen ditugu, baina ordu erdi gehiago gelditzen gara laguntza behar duten ikasleekin. Lana aurreratu eta ulertu ez dutena esplikatzen diegu banaka eta oso baliagarria da haurrentzat. Atentzio pertsonalizatua eskaintzen diozu haur bakoitzari eta besteekin parekatzea lortzen da, beti atzetik eta ezinean ibil ez dadin”.

Gurasoen inplikazioa: erabatekoa

Bi irakasle-zuzendari hauek erabat ados daude ikastolan gurasoek ikaragarriko garrantzia dutela esaten dutenean. Ikastola kooperatiba bat da eta gurasoak dira bertako bazkideak. Arlo pedagogikoaz irakasleak arduratzen dira, baina gainontzekoa gurasoen esku dago: dirua zertan gastatu behar den erabakitzea, irakasleren bat kontratatu behar den ala ez erabakitzea, nor izango den... Erabakiez gain, ikastolan egin behar diren lanak (mahaiak jarri, hormak margotu, ordenagailuak ezarri...) ere gurasoek egiten dituzte. Eta ikastolako ekintzetan ere parte hartzen dute. “4:30ean bukatzen ditugu klaseak eta normalean ondoren etxera joaten dira. Bada, duela gutxi guraso talde batek etxera joan ordez haurrak beraiekin ikastolan gelditzea proposatu zuten. Etxera joan eta telebista ikusten egon ordez, hemen askaria jan eta beste haurrekin egotea nahiago zuten gurasoek. Eta horrela egiten dute orain, hainbat ekintza antolatzen dituztelarik hemen geldituta” kontatzen digu Oterok.

Bianatik Oionera

Bianako ikastolan Lehen Hezkuntzako 6. mailaraino egon daitezke eta ondoren bi aukera dituzte: herriko eskola publikora joatea edo ikastolan jarraitu nahi badute, Oiongo ikastolara joatea. Baina nolatan Oionera, Arabara, eta ez Lizarrara? “Lehenengo arrazoia hurbiltasunarena da” dio Crespok. “Lizarrara 30 minutu luze daude Bianatik, eta Oionera, aldiz, hamar minutu. Beraz, alde horretatik egokiagoa da Oionera joatea. Gainera, klaseak bukatu ostean, hamar minututan Bianan daude eta lehen egi-

ten zizuten gauzak egiten jarrai dezakete (kirola, musika, dantza...)”. Erentzungo hurrek Lizarrako ikastolan dauzkate eskolaritate liburuak eta hainbat proiektu egiten dituzte elkarrekin, baina egunerokotasunean Oiondik gertuago sentitzen dira.

“Gure matrikulazio kanpaina ez dugu esaten Haur eta Lehen Hezkuntza soilik daukagunik, Bigarrena ere bai, baina ez Bianako eraikuntzan, Oiongoan baizik” azaltzen digu Oterok. Honek agerian uzten du bi ikastolen artean dagoen harremana eta lankidetzak. “Badakigu gure ikasleak zein irakasleekin jarraituko duten Oionen, bakadigu zer irakasten duten, nola irakasten duten, zein liburuarekin, zenbat ordu... Koordinatu egiten gara”.

Ikasleak Oionera joan aurretik, hainbat ekintza egiten dira elkar ezagutzeko eta tutore biak ere elkartzen dira ikasle berri emateko. “Guri oso garrantzitsua iruditzen zaigu Oiongo tutoreari gure ikasle berri ematea. Adibidez, dislexikoa dela edo harroputza dela esatea” dio Crespok. “Batzuk hori ez dela egin behar pentsatzen dute, ikasleak klasifikatu egiten ditugulako eta irakasle berriak berak konturatu behar duelako gauza horietaz. Baina gure ustez beharrezkoa da informazio hori alde aurretik ematea, bestela milaka arazo sor daiteke kasu bakoitzean: integrazio arazoak...”.

Ikasleak Oiongo ikastolara joaten direnean, ikasleekiko erlazioa ez dute eteten. “Adibidez, informatika ikastaro bat antolatu dugu Bianan, eta ikasle ohi batzuek izena eman dute. Denbora libreko ekintzetara ere gurekin etortzen dira...”.

Datorren ikasturtean 5. promozioa joango da Oionera DBHko ikasketak egitera.

Erentzun ikastolako irakasleria gaztea da, gogotsua eta bizia. “Gu ikastolatik pasatakoak gara. Gure irakasleak gutaz arduratu ziren eta hori besteei eskaini nahi diegu orain”. Horregatik, nahiz eta tunel batean egon eta oraindik bide luzea gelditu, norabiderik galdu gabe darraite aurrera. Funtzionamendu eta pedagogia aldetik finkatuta daude eta etorkizun oparoa antzematen dute tunel horren amaieran.

KONTSULTA TXOKOA

Zuen kezkek
planteatzeko eta
zuk ere bestean
zalantzak
argitzeko lekua
duzu.



Berriak

Bidal itzazu zure galderak edo zalantzak
irakasle euskaldunon aldizkarira

EKAINA



27. Udako Ikastaroak. UEU

UEUk aurten ere ikastaro mordo prestatu du udarako bere hiru helburuak ahaztu gabe: Euskal Unibertsitatea egituratzeko baldintzak prestatzea, arlo zientifikoetan euskara lan-tresnatzat hartzea eta ikasle, irakasle eta profesionalen topagune bilakatzea. Ohiko legez, ikastaroak Miarritzen eta Iruñean izanen dira.

Hona hemen irakaskuntza arloarekin lotura gehien duten ikastaroen zerrenda:

Miarritzen uztailaren 5etik 9ra

Izena emateko epea: ekainaren 1etik 25era

- **Pedagogian:** "Gogo-erabilketa". Mikel Erramouspe. Uztailaren 8tik 9ra. 10 ordu, kreditu bat.

- **Psikologian:** "Programazio neurolinguistikoa, PNL. Isabel Millet. Uztailaren 5etik 9ra. 22 ordu, 2 kreditu.

Iruñean uztailaren 19tik 30era

Izena emateko epea: ekainaren 1etik 30era

- **Glotodidaktikan:** "Irakasleok ere material-sortzaile". Uztailaren 26tik 30era. 25 ordu, 2 kreditu.

- **Pedagogian:** "Ahozkotasuna eta hezi-kea: haur eta gazteen kasuak". Uztailaren

19tik 23ra. 23 ordu, 2 kreditu.

- Psikologian:

* "Psikeaz harantzago". Uztailaren 19tik 30era. 42 ordu, 4 kreditu.

* "Idazkera harmonikoak ahalbidetzen eta idazketa "txarrak" ulertzen hezkuntzan". Uztailaren 20tik 22ra. 15 ordu, 1'5 kreditu.

Izena emateko tokiak eta informazio gehiago:

- Araban **Axular** liburudenda, Arka, 11 Gasteiz. Tel.: 945 13 25 06

- Bizkaian **UEU**, Concha Jenerala 25, 4 Bilbo. Tel.: 94 421 71 45 eta 94 421 46 79

- Gipuzkoan **BAGERA**, Aldamar eta Pasealeku berriaren izkina, Donostia.

Tel.: 943 43 12 28

- Nafarroan **Auzolan** liburudenda, Tudela 16, Iruñea. Tel.: 948 15 38 67

Karrikiri elkarte, Xabier kalea, 2 bis behera, Iruñea. Tel.: 948 22 25 89

- Iparraldean **UEU**, 11, J. Laffite karrika, Baiona. Tel.: 00 33 5 59 25 60 56

Zabal liburudenda, Panneau 25, Baiona. Tel.: 00 33 5 59 25 43 90

EHUren XVII. Uda ikastaroak eta XI. Europar ikastaroak

Uztaila eta iraila bitartean 61 ikastaro eta bi jardunaldi izango dira EHUren aurtengo uda ikastaroetan. Donostian egingo dira guztiak, Miramar Jauregian, Kursaal Batzar Jauregian eta Gipuzkoa-Donostia Kutxa aretoetan.

Aurten irakasleriaren prestakuntzari arreta berezia eman nahi izan diote eta zeharkako zikloak antolatu ditu. Hauek dira horiei buruzko ikastaroak:

- **VIIIth international congress for the study of child language/Haur hizkuntzaren ikaskuntzarako VIII. nazioarteko biltzarra.**

Uztailaren 12/16

Itziar Idiazabal

Europar ikastaroa

Ikastaroaren hizkuntza ofizialak: euskara eta ingelesea bat-bateko itzulpenarekin.

- **Calidad en educación. Calidad en el aula.**

Uztailaren 1/3

Jose M^a Elola eta Robert Winter

Ikastaroaren hizkuntza ofiziala: gaztelera.

- **Euskararen irakaskuntza eta teknologia berriak.**

Uztailaren 8/10

Joanba Bergara

Ikastaroaren hizkuntza ofiziala: euskara.

- **La enseñanza de la historia en el nuevo bachillerato.**

Uztailaren 12 eta 13an

Joseba Agirreazkuenaga eta Mikel Urquijo

Mintegiaren hizkuntza ofiziala: gaztelera.

- **Avances en tecnología educativa**

Uztailaren 20/23

Manuel Benito Gómez

Ikastaroaren hizkuntza ofiziala: gaztelera.

- **Education: the point of view of the economists**

Uztailaren 22/24

Julio Grao eta José-Ginés Mora

Europar mintegia

Mintegiaren hizkuntza ofiziala: ingeleza.

- **Educación. Gestionar la diversidad**

Uztailaren 25/27

Clara Barreiro

Europar ikastaroa

Ikastaroaren hizkuntza ofiziala: gaztelera.

- **Deporte y mejora de salud infantil**

Uztailaren 26 eta 27an

Pedro Manuel Ramos Calvo

Ikastaroaren hizkuntza ofiziala: gaztelera.

Matrikula epea: maiatzaren 3tik aurrera eta plaza hutsak gelditzen diren bitartean.

Informazio gehiago:

Ikastaroen idazkaritza

Miramar jauregia

Miraconcha pasealekua, 48

20007 Donostia

Telefonoa: 943 21 95 11

Faxa: 943 21 95 98

E-mail: suocvupv@su.ehu.es

ARGITALPENAK



BIBLIAKO KONTAERA-ANTOLOGIA

Juan Manuel Etxebarria
Ibaizabal argitaletxea
270 orr.

Ibaizabal argitaletxeak argitaratu duen liburu honetan Bibliako kontaerak biltzen dira. Orokorrean denentzat den liburua da, baina bereziki irakaskuntzan Etika eta Erligioa ikasten eta irakasten dutenentzat eta parrokiatako katekesi eta konfirmazioan ibiltzen direnentzat.

Israel aldeko tradizio zaharreko historia-bizikerak biltzen dira. Laburdurak, historiako taula kronologikoa, Biblia osoko 371 kontaera eta koloretako mapak ditu.

HOGEIGARREN MENDEKO GERTAERA NAGUSIAK

Oinarrizko liburutegia
Gaiak argitaldaria
187 orr.



Liburu honetan XX. mendean gertatu diren gerrak, aldaketa ekonomikoak eta politikoak, eta estatuen sorkuntza eta suntsiketak aztertzen dira. Horrekin batera kultura, zientzia eta teknikan gertatu diren iraultza garrantzitsuenak ere azaltzen dira, gure planetaren mugimendu sozialen radiografia borobila eginez.



NIRE AUZOKO BAT SORGINA DA

Paloma Bordons
Giltza argitaletxea
38 orr.


Giltza argitaletxearen Tukan Urdina saileko 29. liburua da honako hau. Paloma Bordonsen idatzitakoa da eta itzulpena Joseba Larrakoetxeak egin du. 6 urtetik aurrerako haurrentzako da. Auzora bizitzera etorri berri den emakume-sorginaren kontuak dira irakurgai.

EGUNEROKO ERRONDA

Ricardo Alcántara
Giltza argitaletxea
174 orr.



Hau ere Tukan saileko liburu berri bat da, baina 9 urtetik aurrerako haurrentzat, hau da, Tukan Berdea sailekoa. Ricardo Alcántara uruguayarrak idatzitako eta Igone Etxebarriak itzulitako liburu hau Zelobert izeneko hirian kokatzen da. Arraza guztietako animalien arteko gora beherak kontatzen dira.



GEOLOGIA HIZTEGI ENTZIKLOPEDIKOA

Elhuyar Kultur Elkarte
521 orr.

Hiztegi entziklopediko hau geologiaren arloan terminologia aldetik dagoen hutsunea betetzeko asmoz kaleratu da. EHUko Leioako irakasle eta ikasle talde bat aritu da irudi, grafiko eta argazkiz hornitutako lan hau osatzen. Liburuak bi zati ditu: lehenengoan euskarazko sarrerak, ordainak eta definizioak daude, eta bigarrenean beste hizkuntzetatik (ingeleza, frantsesa eta gaztelania, hurrenez hurren) abiatuta, euskarazko ordaina. Guztira 4.000 sarrera inguru dira.



1999/2000 ikasturterako haurren aurrematri- kulazio kanpainaren balorazioa SORTZEN-Nafarroa

Euskal Eskola Publiko Berriaren aldeko SORTZEN mugimenduaren ekimenez eta aurreko urteotan egin dugun legez, haurrak euskarazko D ereduan matrikula daitezen hainbat eta hainbat lan ildo ari gara jorratzen.

Maltzurkeriaz jokatu du Marcote-guik eskola publikoetan matrikulazio epea Aste Santuko oporren bezperan zabalduz eta oporren ondoren astebete baino ez utziz. Eskola pribatuetan, berriz, ez zegoen horrelako eperik eta hori handicap bat izan da eskola publikoarentzat.

Ez ahaztu duela hiru urte Nafarroako Gobernuak eginiko diptikoaren kanpaina, zeinean "euskara, aukera ona" zen. Duela bi urte jadanik ez zen aukera ona, "beste aukera" baizik, eta iaz diptikoa egin ere ez zuen egin. Aurten,

berriz, euskarari eta D ereduari eraso diote. Lotsagarria da Nafarroako Gobernuko arduradunak horrela jardutea, kontuan harturik Nafarroako Gobernuko sarean, hots, sare publikoan, urtez urte beherantz zihon matrikulazio kopurua euskarazko matrikulari esker geldi arazi zela. Hau da, sare publikoan matrikulazioa igo egin da euskarari esker.

Gero eta guraso gehiago gara gure seme-alabak euskarazko D ereduan matrikulatu ditugunak, D ereduak bermatzen baitu hastear dagoen XXI. mendeko nafarrak elebidun orekatuak izatea. D ereduari esker hemengo bi hizkuntzetan mintzatzen jakinen dute. Europari begira, ezin dugu ahaztu elebidunok beste hizkuntza -ingeleza, errate baterako- geureganatzeko elebarkarrek ez dituzten erraztasunak ditugula. Hemen egin berri diren selektibitate azterketetan D ereduko neska-mutilek beste ereduak baino emaitza hobekatu dituzte. Horra hor, besteak beste, D ereduaren aldeko apustua egiteko hainbat arrazoi.

SORTZENen ekimenez saio informatiboak eta hizkuntzen ereduaren inguruko hitzaldiak burutu dira hainbat eta hainbat lekutan -eskatu diren guztietan-. Lagundu diguten Euskara Fundazioari eta aditu eta teknikari guztiei gure eskerrik beroena helarazi nahi diegu, eta baita parte hartu duten guraso guztiei ere.

SORTZENek Euskal Kulturaren Batzarraren eta udal teknikarien laguntzaz euskarazko D ereduaren matrikulazioaren aldeko kanpaina burutu du, besteak beste, triptiko baten bidez afitxak eta hainbat komunikabideetan iragarkiak eginez.

Osotara 600.000 pezeta baino gehixeagoko aurrekontua duen kanpaina

egitea inoiz baino gehiago merezi izan duelakoan gaude, are gehiago kontuan hartuz Nafarroako Gobernuak ez dela ezertaz arduratzen.

Emaitzak ikusita pozik eta harro egoteko moduan gaude:

Aurreko asteotan hainbat komunikabideetan argitaratu diren kopuru guztiek, alde edo moldez, aurten ere beste urte batez euskarazko D eredu gora doala adierazten dute. Berriz bete da azken urteotako joera; euskarazko D eredu gora doa. Nafarroa osoan %29a lortu du D ereduak. A eredu ere igo egin da, %27,56 lortuz eta gaztelera hutsezko eredu, G eredu, jeitsi egin da, Nafarroa osoan %43a suposatzen duelarik.

Iruñeko eta Iruñerriko datuak oso adierazgarriak dira. Iaz D ereduko eskoletan 566 haur aurrematrikulatu ziren eta aurten 602, iaz baino 36 gehiago.

Ikastola pribatuetan iaz 216 matrikulatu ziren eta aurten 224, iaz baino zortzi gehiago.

Hortaz, batuketa eginez ondorioa argia da; osotara Iruñea eta Iruñerrian iaz 782 haur aurrematrikulatu ziren euskarazko D ereduaren eta aurten 826, hau da, 44 gehiago. Kontua izanik errolda ez dela handitu, portzentualki igoera nabarmena da.

Euskararen alde eta eskola publiko berriaren alde gaudenok pozteko emaitzak dira hauek, baina orain denok eskatu behar diogu administrazioari guraso horien nahia ase dezan. Ez deza-la maltzur jokatu eta guraso horiei euren eskubidea berma diezaiela.

Aparteko aipamena merezi dute Ermitagainako, Atarrabiako eta Alde Zaharreko kasuek.

Sortzen, 1999ko maiatza

Eraldaketa motak

Oscar VIGUERA

Lasarte-Oriako PATeko zuzendaria



Gure garaia eraldaketaren garaia dela esaten da. Eta agerian dago eraldaketa erritmoa bizi-bizia dela azken urteotan. Eraldaketa hauetatik at geratu den eskolan gauza asko ari da gertatzen: curriculum berriak, etapa berriak, berriztapenak, teknologia berrien sartzea... Baina, batez ere, eskolak gizar-tean bete behar dituen funtzioen berrikusketa.

Batzuek eskolak bere funtzioak ez dituela eraginkortasunez betetzen diote. Informazio igortzailea den heinean, lehiakide asko eta indartsuak sortu zaizkio eskolan eta gainera estatuek hezkun-

tza sistemaren emaitzak kontrolatu egin nahi dituzte beren baliabide eskasen erabilpena erabaki ahal izateko. Zalantzarik gabe, eskolak badu zertan kezkatu.

Baina nolako eragina izan du honek guztiak eskolan? Nola erantzun die eskolak kanpotik egin zaizkion eskakizun anitz eta, askotan, kontrajarriei? Zein eraldaketa gertatu dira eskolaren baitan eta zergatik? Hauexek ditugu, besteak beste, erantzun beharreko galderak. Azken urteotan eskoletako eraldaketa prozesuetan ezartzen ari diren baliabideak (orduak, ahaleginak, dirua...) nabarmenak izan dira eta merezi du zer gertatzen ari den aztertzeak.

Nire ustez, une honetan garrantzitsuenak ez da eskolan eraldaketa asko eta sakonak egitea, gertatzen ari dena ulertu eta zentzua bilatzea baizik. Ikastetxe askok transformazio itsaso batean galdu dute norabi-

dea eta berriro hura aurkitu beharrean daude. Zeregin horretan hurrengo gogoetak baliagarriak izango direlakoan nago.

Oinarizko eraldaketa ereduak

"Eraldaketa" askotan erabiltzen den kontzeptua izan arren, ez da berez batere simplea. Psikologia, soziologia, ekonomia eta hainbat arlotatik ikertua izan da eta osagai anitz eta konplexuz osatua dela ikusi da. Hurrengo lerroetan erakundearen eraldaketa eta, zehazkiago, eskolarena izango dugu aztergai, bere deskribapena eta funtzionamendua ulertzeko lagungarriak izan daitezkeen kontzeptuak analizatzeko direlarik.

Hiru eraldaketa mota bereiztuko ditugu: eboluzio-eraldaketa, egokitzapenezkoak eta programatikoak. Hasteko, bakoitzaren alde teorikoa ikusiko dugu gure errealitatea hobeto uler dezagun,



ahaztu gabe eraikuntza teorikoak diren heinean ez direla errealitatearen isla zuzenak izango.

Eboluzio-eraldaketak

Eraldaketa hauen adibideak maiz atzeman daitezke gizartean eta naturan. Gizakiaren bizitzaren lehenengo urteetan gertatzen diren eraldaketarik nabarmenenean eboluzioa dute oinarri. Aldaketa horiek begi-bistakoak eta beraz onartezkoak izaten dira. Naturan eta gizakiarengan ez ezik, erakundeetan ere gertatzen da eboluzioa eta, horrenbestez, baita eboluzio-eraldaketak ere. Erakundeak jaio, garatu eta hil egiten dira. Historia bat dute, motzagoa edo luzeagoa, eta modako "kultura" delakoa ere bai.

Baina beste zein ezaugarri dituzte mota honetako eraldaketek? Jarraian aipatuko ditut nire ustez nagusienetarikoa direnak:

- Halabeharrezkoak dira.
- Ez daude gure kontrolpean.
- Ez daude guztiz xedatuak.
- Kontzienteki edo inkontzienteki gerta daitezke.
- "Arau" bati jarraitzen diote.
- Beraietaz dugun esperientzia intuiti-

boa formala baino askoz hedatuagoa dago.

Erakundeak eta pertsonak eboluzio baten arabera garatzen bagara ere, ez gaude erabat baldintzaturik. Inguruak eta norberaren askatasunak ere badute zer esana prozesu horretan, jakin baitakigu eraldaketa batzuk ez daudela gure kontrolpean. Guk ezin ditugu haiek programatu, baina agian aurreikus ditzakegu gutariko bakoitzak dugun esperientzia intuitiboaren bidez. Zehazki nola jakin gabe, askotan egoera baten aurrean "denborak konponduko du" pentsatu izan dugu.

Erakundeak pertsonak bezalaxe ez dira hutsetik hasten. Historia bat dute gibelan eta horrek martxan jarri nahi diren eraldaketaren prozesua baldintzatu arren, ez ditu erabat mugatzen, lehen ikusi dugunez.

Asko ikas genezake honetatik guztitik eskoletan gauzatu beharko genituzkeen eraldaketak burutzeko. Beraz, eskolaren historia eta kultura ere kontuan hartu beharko ditugu. Hona hemen aintzat hartu beharreko iradokizun batzuk:

1. Batzuetan, eskolaren historia larregi ezagutu gabe jarri nahi izaten dira eraldaketa prozesuak martxan eta hau arriskugarria da eraldaketaren arrakastarako, arazo ugari iturburu bilakatzen baita.

2. Askotan, beste eskoletan arrakastatsuak suertatu diren berrikuntzak gurean ezarri nahi ditugunean, ez diegu behar adina kasu egiten eskola ezberdinen historien berezitasunei. Honek zer esan handia du berrikuntzaren ezarpenean.

3. Eskolan esperientzia handia duten pertsonen baliatu behar dugu. Beraien-gandik jaso daitekeen informazioa oso aberasgarria eta baliagarria suerta daiteke eraldaketa prozesuaren egokitasuna baloratzeko orduan.

4. Eskolan oso errotuta dauden praktika pedagogikoak aldatzerakoan arreta berezia jarri behar dugu, behar hainbat denbora hartuz haiek ordezkatu dituen praktika berria ondo ezagutzeko eta esperimentatzeko zaharra baztertu baino lehen.

5. Eraldaketa batzuk ez dira gertatuko baldintza egokiak ezartzen diren arte. Eraldaketaren bat proposatzerakoan, oinarriko baldintzak betetzen diren ala ez jakin behar da. Beteko ez balira eta gure esku balego, baldintza hauek lortzeko ahaleginak egin beharko genituzke.

Hori ziurtatzerik ez badago, hobe da baldintza hauek izan arte itzarotea. Izango da aukera aurrerantzean berriz ekiteko.

6. Taldea zein norbanakoaren berezko eboluzioa aintzakotzat hartu beharrekoa da. Ikerkuntzak agerian uzten duenez, hainbat aldi edo etapa bereiz daitezke irakasleen eta erakundearen garapenean. Bakoitzari dagozkion bereizgarrien artean, eraldaketari aurre egiteko gaitasuna dago, besteak beste.

Egokitzapenezko eraldaketak

Ikastetxeetan jotzen diren eraldaketen artean hauek ditugu ugarienetarikoak. Horrelakoak franko ezagutu ditugu hezkuntza munduan, gizartean gertatutako eraldaketek nabarmen eragin baitute ikastetxeetan.

Eraldaketa hauetan ondorengo berezitasunak antzematen dira:

- Inguruak duen eragina nabarmena da.
- Beste eragile bati erantzuteko sortzen dira.
- Erantzuna erabakitzeke, teoriz, askatasuna badago ere, praktikan oso baldintzatuta daude.

- Mota honetako eraldaketak lehentausan handikoak izaten dira, erakundearen iraunkortasuna tartean egoten baita.

- Ohituraren poderioz, eraldaketa hauek nahiko automatikoak bihurtu daitezke eta jarrera ez-kritikok eragin.

Bestalde, inguruak eskolarekiko egiten duen presioa areagotzen ari da. Presio hori eskolak gizartearen beharrezko egokiago erantzuteko eraldaketei euts diezaien zuzendua dago. Mende honetako gizartean eta munduan gertatutako eraldaketa askori bizkarra eman diola egotzi zaio eskolari, eta egun, haietara moldatzeko eskakizuna gero eta nabariegia da.

Nola jokatu behar du eskolak errealitate honen aurrean? Argi dago ezin duela gorrarena egiten jarraitu. Bere muga eta baldintzez jabetu behar du eta gizarteak dituen arazo guztien konponbide nagusia ezin dela bihurtu. Honek aukeraketa baten aurrean kokatzen du eskola. Baina ba al du aukeraketa gaitasun, bitarteko, borondate eta baldintza nahikorik? Desafio honen aurrean, uste dut hausnarketa dela behar beharrezkoa duen abiapuntua.

Eskolaren "inguru" honetan hiru eremu bereiztuko nituzke: gizartea, administrazioa eta eskolaren inguru hurbila. Eremu hauen arteko hartu-emanak eta lotura agerikoak dira eta bereizketa hau

eskolarekiko izan dezaketen eraginaren arabera egingo dut.

1. Ezartzen dituen irudikapenen bitartez gizartea, oro har hartuta, eragin iturri nagusia dugu eskolan. Eragin hori, batzuetan ez da zuzenean jasotzen, zeharka baizik. Eraldaketa teknologikoak, giza harremanetakoak, langabezia, informazio kudeaketaren berrikuntzak, munduko alde ezberdinen arteko elkar-menpekotasuna eta abar ditugu horren adibide. Eragile hauek eskolaratzeko hainbat bide erabiltzen dira:

Alde batetik, eskolari proposamen zuzenak egiten zaizkio: programak, curriculum bereziak, kanpainak...

Bestetik, irakasleak, gizakideak diren heinean, bizi diren gizartearen balio eta usteen eramaileak dira.

Azkenik, politikariek, gizartearen ordezkari diren heinean, haren kezka eta beharrezan hartzen dituzte aintzat. Politikariek estatuak eskuetan jartzen dizkien tresnen bitartez (eskola barne) eragiten dute.

2. Administrazioak, berriz, hartzen dituen erabakien bidetik eragin handia du, administrazioa jabea den eskoletan batez ere.

Azken garaiotan gainera, joera kontrajariak somatzen dira arlo honetan. Alde batetik, administrazioetik ikastetxeen autonomia aldarrikatzen da eta horretarako zenbait neurri hartzen dira martxan. Bestetik, Hezkuntzara bideratzen diren baliabide ekonomikoen eta emaitzen kontrolatu nahia azpimarratzen da. Aldi beran, zentralizazio eta deszentralizazio mugimenduak sortzen ari direla dirudi.

Administrazioaren azaleko kontrajartze honek ondorio zehatzak dakartza eskolarentzat. Horrela, administrazioak, autonomia aitzakiatzat hartuz, gizarteak Hezkuntza Sistemari egiten dizkion eskakizunen erantzukizuna ikastetxean kokatzen du, berak ikastetxeen arteko jokoainaren papera bereganatzen eta, noski, joko arauak ezartzen dituelarik. Ez da beharrezkoa ohartaraztea arau horiek noraino baldintza ditzaketen eskolan sor daitezkeen erantzunak.

3. Azken eremua eskolaren inguru hurbilarena da. Bertan, herriko edo auzoko ezaugarri eta baldintzak, gurasoenak eta ikasleenak sartzen dira, hiruren arteko lotura eta eragina zuzena delarik. Eskolak bere inguru hurbiletik pairatzen duen isolamendua deusestatzeko beharra du.

Hezkuntza erkidegoan dauden talde guztien (irakasleria, gurasoak, ikasleria, beste langileria...) partaidetza bultzatu beharko luke eta tokian tokiko beharrezan eta arazoi irekia egon eta sentikorra izan, ondorioz inguru hori aldatzen ahalegindu beharko lukeelarik. Baina, zein da eskolak gure inguru hurbilarekiko izan beharko lukeen jarrera? Inguru horretatik datozen presioei eutsi eta dauden "bezeroen" eskakizunei moldatu merkatuan mantentzeko? Ala jarrera kritikoa mantendu gizarte osasuntsuagoa, bidezkoagoa eta helduagoa lortzeko ahaleginetan? Hitz gutxitan, eskola erreproduzitzaila ala transformatzaila izatea dago jokoan. Ez da hau eztabaida honetan gehiago sakontzeko unea, baina, hala ere, eskolan sortzen diren eraldaketa prozesuen oinarrian dagoela aitortu behar da.

Honetatik guztitik ondorio batzuk atera daitezke:

1. Eskolak ezin du bere inguruko eraginetik ihes egin. Eskolak inguruaz aharren badu inguruak eskola gaitzetsi egingo du.

2. Inguruak egiten dizkion eskakizunak era kritiko batez aztertu beharko lituzke.

3. Eskolak ez du zentzu eta norabiderik gabeko eraldaketa kate batean erori behar. Inguruari moldatzearena ez litzateke eraldaketarako arrazoi bakarra izan behar.

Eraldaketa programatikoak

Hauek eskolaren xede eta helburuekin lotura zuzena dutenak dira, eskolak bere helburuak lortzeko planteatzen baititu eta hortaz, eskolaren barrutik bultzatuak eta erabat xedatuak dira. Eraldaketa programatikoaren beste ezaugarriak hauexek dira:

- Norbaitek bultzatzen ez baditu ez

dira berez gertatzen.

- Lortu nahi diren helburuen inguruan adostasunik ez badago nekez lor daitezke.

- Ezinbestekoak dira eskolan sortzen diren eraldaketen norabidea markatzeko.

- Aurreikusi egin behar dira eta lehen-tasunak markatu.

- Egoera batetik nahi den egoera berri- ra pasatzea planteatzen dute.

Azken urteotan eskolaren xedeen eta helburuen inguruan hainbat dokumentu burutu dira. Dena den, dokumentu hauen eragina ez da handia izan, bertan planteatzen zena gauzatzeko baliabideen falta nabaria izan delako. Eraldaketa programatikoek eskolaren gaurko egoeratik helburuetatik hurbilago dagoen beste egoera batzuetara igarotzeko tresnak behar dituzte. Gakoa zera da, ordea: igarotze bide hori programatzeko era.


Eraldaketa moten arteko harremanak eta loturak

Aztertutako eraldaketa horien artean nolabaiteko hierarkizazioa igartzen da. Oinarrian eboluziozkoak daude eta gailurrean programatikoak, egokitzapenezkoak tartean direlarik, beheko eskeman irudikatzen den moduan:

Aurkeztu ditugun hiru oinarriko eraldaketetatik bigarren mailako beste batzuk eratoritzen dira. Hauetan oinarriko eraldaketak neurri eta modu ezberdinetan konbinatzen dira. Eta beraien eragina nolakoa den ikusirik (eragin nabarmena + ikurras adierazia dago taulan eta nabarmena ez dena -), bigarren mailako zazpi eraldaketa berri bereizten dira (Ikus 1. taula)

Garapenezkoak

- Gehienetan gure eskuetan ez badaude ere, oso kontuan hartu beharrekoak dira.



praktikatzan



Adibidez, ikastetxe berri baten hasierako urteetan irakasleen arteko elkar ezagutzeari, moldaketak egitea eta horrek ekar ditzakeen ondorioak funtsezkoak izaten beste edozein eraldaketa prozesu proposatzerakoan.

- Mota honetako eraldaketa asko edo sakonak sortzen badira, zaila gertatuko zaigu beste batzuk aurrera ateratzea, hauek lehentasuna dute eta.

Jarraikortasunezkoak

- Helburua jarraikortasuna izanda, hauek ere lehentasuna dute.

- Eraginkortasuna eta eragingarritasuna.

na bilatu behar dugu, behar baino energia gehiago ez higitzeko horretan.

- Besteen espektatibak ondo ezagutzea komeni zaigu.

- Askotan eraldaketa hauek iraganbide huts bihurtzen dira.

Programatikoak

- Xedatuak dira eta, beraz, adostasuna behar da. Amankomunak izan behar dute.

- Programatu egin behar dira, norma-lean ez baitira berez sortzen.

- Ez dira behin betikoak, baina gutxieneko iraunkortasuna beharko lukete.

- Denbora luzeagoa behar dute eta pazientzia gehiago gauzatzeko.

Moldatzekoak (Politikoak)

- Eboluzio-erlaketak ez die barruko eragileei soilik erantzuten, kanpokoek ere jasotzen dute haren eragina.

- Gure kontrolerik kanpo gertatzen diren eraldaketak, hots, geuk aukeratzeko ez ditugunak dira eta kontuan hartu behar ditugu.

- Eskola munduan dago kokatuta eta erreala da, beraz ditugun baliabideak, ingurunea eta baldintzak ezin ditugu ahaztu.

Pragmatikoak

- Hauetan gehienak egokitzapenezkoak izanik ere, ez dute zertan ikastetxearen helburuen kontra joan behar. Batzuetan ingurutik datorkion eraginak aukera ezin hobeak eskaintzen ditu eskolaren helburuak lortzeko.

- Ikastetxearen xedeetan bere gizaratearen helburuak jaso behar dira, eta harantzago eramaten saiatu ere bai. Beraz, eraldaketa probetxugarrienak bi mota horietakoak (egokitzapenezkoak eta programatikoak) uztartzea lortzen dutenak dira.

Hobekuntzakoak

- Ikastetxearen momentu historikoak, baldintzek eta kulturak bere helburuen zehaztapena baldintzatzen dute. Horrexegatik, proposatzen diren eraldaketa hauek biak, helburuak eta eboluzioa, kontuan izaten dituzte.

- Eraldaketa hauetan ikastetxeak barrukoari begiratzen dio batez ere.

Egiturazkoak

- Hauek dira garrantzitsuenak eta konplexuenak, oinarriko hiru eraldaketak biltzen direlako bere baitan (eboluziozkoak, egokitzapenezkoak eta programatikoak).

- Hezkuntza erkidegoko partaideen ahalegin handia eskatzen dute eta konpromezua ezinbestekoa da. Horregatik, gutxieneko emankortasuna bermatu ahal izateko, adostasun maila zabala lortu behar da haien artean.

- Aldaketa sakonak eragiten dituzte, baina denbora luzea eta antolaketa sendoa eskatzen dituzte.

Eraldaketa asetze maila

Erakundeek ez dute eraldaketak egiteko mugagabeko gaitasunik. Bizirik jarraitzeko gutxieneko eraldaketa maila behar badute, gutxieneko iraunkortasun maila ere ezinbestekoa dute. Beste alde-rik, eraldaketek berekin dakarten "kostua" (denbora, ahaleginak, bitartekoak...) ere ordaindu beharra izaten dute ikastetxeek. Horrenbestez, erakunde batek ezin du edozein eraldaketa maila gauzatu. Muga bat badu: maila kritikoa. Baina muga honek ez du erakunde guztietarako berdina izan behar.

Honetatik ondorio garbia ateratzen da: balizko eraldaketen artean eskolak ondo aukeratu behar du bere baliabide mugatuak non eta nola erabili. Eskolak bere eraldaketa prozesua gidatzeko planifikazio tresnak garatu behar ditu, momentuko larrialdiek gidatutako dinamikan erori nahi ez badu. Larrialdi horiek ia beti kanpotik markatzen dira eta azkenean ikastetxeak bere eraldaketa prozesua bes-teen eskuetan uzten du.

Eskolari kanpotik egiten zaion eraldaketa-erako eskaintza gero eta zabalagoa da. Horrexegatik, eskolak argi izan behar ditu horien artean gehien interesatzen zaiona aukeratzeko irizpideak. Eta nire ustez, hori bere eraldaketaren plangintzarako tresnak garatzen dituen heinean lortuko du.

1. taula

Eraldaketak	Eboluzioa	Egokitzea	Programazioa
Garapenezkoak	+	-	-
Jarraikortasunezkoak	-	+	-
Programatikoak	-	-	+
Moldatzekoak	+	+	-
Pragmatikoak	-	+	+
Hobekuntzakoak	+	-	+
Egiturazkoak	+	+	+

IRUDIEN BIDEZKO NIRE HIZTEGIA



- 1.000 hitz
- 20 gai
- 800 marrazki koloretan
- gaiei buruzko igarkizun eta jokoak




Txiki eta helduentzat.
Edonoren jakin-mina asetzeko
moduko liburua.



Txikitik handira
udan irakurtzeko
apropos-aproposak dira.

ARTZAIN ESKOLA



Ogibidea artzantza izatea nahi duten ikasleentzat



Artzain Eskolako 1. promozioa



Modulo teoriko-praktikoak



Artzain etxeetan praktikak



Iparralde-Hegoalde elkartrukeak

Informa zaitez:

Nikolas Segurola: 943 78 30 23

Batis Otaegi: 609 43 12 65

943 81 46 47